

**Goienkaria**

Martitzena / 2007ko abenduaren 18a / GOIENKARIaren ARGITALPEN BEREZIA



ARGAZKILARIA: XABIER URTZELAI



Ondo pasa jaixetan!

**UGARTE**

[www.suministrosugarte.com](http://www.suministrosugarte.com)

Atzotik, arrera  
gaurtik, arrera  
arbasoen antzera

**GORA  
SANTAMASAK!**

Zuen zerbitzura



Arrasateko Udala

## Goienkaria

### Argiratzalea

Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea  
Nafarroa etorbaduna 2 • 20500 ARRASATE

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua**  
Moniaka Belastegi **Erredaktorea** Iker Barandiaran,  
Mirari Altube, Xabi Urzelai, Mirian Biteri, Aintzane Irizar,  
Iratzi Agirrezaeldegi, Arantza Ezkibel, Mireia Bikuna,  
Jasone Zubala, Maider Uranga, Maider Arregi, Usoa Agirre  
**Maketazioa** Otxel Arrieta **Publizitatea** Amaia  
Mundinianio, Itxaso Bereziar, Fausto Berazadi **Testuen**  
zuzenketa Leire Kortabarria

### EKOITZA NAGUSIA BERGARA

20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila  
Tel.: 943 25 05 01 • Fax: 943 25 05 13  
Posta-e: goienkaria@goiena.com

### ORDEZKARITZAK ARRASATE

20500 Otañola Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 71 25 11 • Fax: 943 71 23 89  
Posta-e: arrasate@goiena.com

### ARETXABAleta

20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila  
Tel.: 943 79 86 21 • Fax: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

### Publizitatea

Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2  
Tel.: 943 79 21 00 • Fax: 943 79 22 93  
Posta-e: publi@goiena.com

### Harpidetzia

Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2  
Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e:  
harpidetz@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000  
ISSN: 1577-1210 • Tirada: 7.450 ale



OJD erakundeak  
ikuskatutako astekaria

LAGUNTAILEAK



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala

GOENKARIAK ez du bere gain hartzan bertan adierazitako  
irizten erantzukizunik.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako  
Sailburuordetza)  
diruz lagundutako aldzikaria

## Santamasetako agurra

**A**ntzinako iturrixe. Murun dragoia hauenetik ospatu izen da Santamas ferixia Mondrauen. 1976xan ahuldua hauen tradiziñuai ebatu eta barriko be baserri giruek bere ein hauen herrixe.

Gizendu jaku txarrixe. Lau urteko etenaldixen ostien aurtenguen herriko kultur taldien arteko elkarlana sendotu ein da komisiñuan parte hartiaz. Honek, Udalau laguntzaz, danok ezauketan doun jai herrikoi eta dotoria posible eittie bideratu dau.


Saltoka dabil herrixe. Neguko bafadei aurre eitteko ez dau dantza apur bat ein, txistorra apur bat jan eta sagardaua dzanga eratia morukoik. Danok jarri deigun gure aldetik zeoze jai on batzuk izeteko eta gurekin ez dazenak gurekin egoteko.

Umore barri barrixe. Jaiei kolorie eta umoria emuteko ez dau danok baserritxar jantzitxa egotia morukoik. Animau eta astindu hautsez betetako abarka horreik Santamas egunien.

Ondo pasau Santamasetan!

## Agurra

Santamas Komisiñue, herriko hainbat kultura talde eta Arrasateko udala



### AURKIBIDEA

- Egitaraua > 04-05
- Santamas komisiñue > 06
- Santamas txerria > 09
- Barazki feria > 10
- Ganadu feria > 12
- Hegaztiak > 13
- Artisau feria > 14
- Trikililaria > 15
- Erankusketa > 16
- Txarri dantza > 17
- Herri bazkaria > 18
- Janari postuak > 21
- Hitzaldiak > 22
- Pilota jaialdia > 24
- Herri kirolak > 25
- Umeen txokoa > 26
- Titiriteroak > 27
- Txorropio eta
- Txorropia > 28
- Bertso jaialdia > 31
- Txitulari eta gaitariak > 32
- Taloa > 34
- Txotx > 35
- Baserritar jantzia > 36
- Cecigak 100 urte > 37
- Elkarrizketa > 38
- Jo ta hanka > 43
- Foto zaharrak > 44-45
- Eskaparate lehiaketa > 46



Erdiko kale 14 • ARRASATE • Tel.: 943 79 46 94



**EGITARAUA**

# SANTAMASETAKO EGITARAUA

**Martzena, 18**

**19:00** HITZALDIA, Kulturateko areto nagusian: *Baserritar gazteak etorkizunari begira delako hitzaldia egindo du UAGA/EHNEko kide batek.*

**Eguaztena, 19**

**19:00** HITZALDIA, Kulturateko areto nagusian: *Nekazaritza eta globalizazioa delako hitzaldia egindo du Paul Nicholsonek.*

**Eguena, 20**

**19:00** HITZALDIA, Kulturateko areto nagusian: *Arrasateko baseria: jarduera, bizimodu eta ohiturak delako hitzaldia egindo du Bixente Pagoagak.*

**Egubakoitza, 21**

**17:30** ETXAFUEGOAK.  
**17:30** SEBASTOPOLEKO TITIRTEROAK. Seber Altube plazatik Herriko Plazara abiatuko dira. Eguraldi txarra eginez gero, Biteri plazan.

**17:30** *Txotxongiloaren artea delako ERAKUSKETAren inaugurazioa, Kulturaten.*

**18:00** Eskaparate lehiaketaren SARI EMATEA.

**18:30** Samasiku txarangaren KALEJIRA.

**19:00** Santamasetako TXERRIAREN AURKEZPENA, Herriko Plazan.

**19:00** Arrasateko Erraldoi eta kilikien KONPARTSA eta KONPARTSA TXIKIA, Herriko Plazatik abiatuta.

**22:00** PILOTA PARTIDUAK, Uarkapen: Gabonetako Torneo BBK, Fagor Arrasatek babestuta. Bigarren finalurreko: Agirre-Rai/Diaz-Mendizabal eta Olaizola I.ena-Otxandorena/Bengoetxea VI.ena-Begino.

**23:00** Haitzama taldearekin DANTZALDIA, Herriko Plazan.

**00:00** SUZKO ZEZENA, Herriko Plazan.

**Zapatua, 22**

**09:00** ETXAFUEGOAK.

**09:30** Udalaxpe TXISTULARI TALDEA eta Arrasateko GAITARIEKIN DIANA.

**10:00** Txotx jaia eta taloak, Herriko Plazan.

**10:00** GANADU FERIA, Garibai etorbidean.

**10:00** HEGAZTI ERAKUSKETA, Biteri etorbidean.

**10:00** FRUTA ETA BARAZKI ERAKUSKETA ETA LEHIAKETA Seber Altube plazan.

**10:00** EZTI DASTAKETA, Herriko Plazan.

**10:30** ARTISAU LANGINTZEN JADUERA FERIA, Jokin Zaitegi plazan.

**11:00** UMEEN TXOKOA, Laubide plazan, Txatxilipurdiren eskutik.

**11:30** KALEJIRA hainbat talderekin: Arrostaitz eta Lore Gazteak dantza taldeak, Arrasateko trikitilariak, Udalaxpe Txistulari taldea, Arrasateko Gaitariak eta Koplariak.



AZOKAREN BUELTAZ IZATEN DA JAIA

**11:30** ITURENGOZANPANTZARRAK, herriko kaleetan.

**11:30** INCANSABLES TXARANGA, herriko kaleetan.

**12:30** Arrostaitz taldearen DANTZA SAIOA, Herriko Plazan.

**12:30** AIZKOLARIAK, Zaldibarren: Nazabal-Mugerza eta Senosain anaia arituko dira.

**13:00** Arrasateko TRIKITILARIEN SAIOA, Herriko Plazan.

**13:00** HARRIJASOTZAILEAK, Zaldibarren: Perurena aita-semeak.

**13:30** Lore Gazteak taldearen DANTZA SAIOA, Herriko Plazan.

**14:00** TXERRI DANTZA herrioa, Herriko Plazan.

**14:30** HERRI BAZKARIA, Uarkapen.

**19:00** TXERRI DANTZA eta LARRAIN DANTZA, Herriko Plazan.

**20:00** BERTSO SAIOA, Amaia antzokian.

**20:00** TXERRI ZOKETA, Herriko Plazan.

**20:00** DANTZALDIA, Herriko Plazan, Jo ta hanka taldearekin.

**Astelehena, 24**

**13:30** TXORONPIO eta TXORONPIA, Seber Altuben.

**18:00** OLENTZEROREN irteera.

**19:30** OLENTZEROREN AGURRA eta Mutil dantza eta Herri dantza, Herriko Plazan.

## Aldape Taberna Jatetxea


(Batzokia)

### ONDO PASAU SANTAMASAK!

Eguneko menua, asteburuetako menu bereziak, despedidak, banketeak, eta abar.

Iturriotz 41. ARRASATE  
Tel.: 943 79 63 69





• Fruta eta barazki azoka eta lehiaketa Seber Altube plazan

20 bat baserritar elkartuko dira euren fruta eta barazki goxoek erakutsi eta saltzeko asmotan. Lehiaketako epaimahaia auzo alkateek osatuko dute.

• Gazta, gozogintza eta gainerako jakiak Biteri plazan

Fruta eta barazkiak ez diren gainerako jakiak egongo dira: eztia, ogia, pastelak, hestebeteak, txakolina... Guztira 90 bat postu inguru.

• Ganadu azoka Garibai etorbidean

Aurtengo berrikuntza nagusia leku aldaketa da: Garibai etorbidean jarriko dute. Ikuagai egongo dira, besteak beste behiak, pottokak, astoak, ardiak eta ahuntzak.

• Artisauen erakusketa Jokin Zaitegi plazan

Eskuekin lan egiten duten euskal artisauen 45 bat postu izango dira ikuagai: bitxiak, pilotak, larruarekin egindako osagaiak...

• Hegazti erakusketa Biteri etorbidean

Bi urteko etenaren ondoren itzuliko dira hegaztiak azokara. 70 buru egongo dira guztira: oilarrak, kapoiak, oilo txikiak... askotariko hegaztiak ikusi ahalko dira.

• Bertso saioa Amaia antzokian

Arkaitz Estiballes, Andoni Egaña, Mikel Mendizabal, Amaia Agirre eta Jokin Labaien bertsolariak elkartuko dira, 20:00etan; gai jartzaile Lierni Altuna izango da.

• Herri kirolak Zaldibar pilotalekuau

Eguerdian aizkolarien arteko desafioak, tartean Nazabale ta Mugerza; eta harria jasotzen, Perurena aita-semeak.

• Herri bazkaria Uarkape pilotalekuau

Lau urteko etenaren ondoren, berriz, egingo dute aurten herri bazkaria. Uarkape pilotalekuau izango da. 700 lagunendako lekua izango da.

Pelukak eta ilea berreskuratzeko sistema berri eta pertsonalizatua

Gubi

ILE APAINDEGIA  
Otalora Lizentziaduna 5  
Tel.: 943 79 12 74

OINETAKOAK ETA POLTSAK

ANGEL INFANTES  
BRUNO PREMI  
KOLLFLEX  
MACARÓ  
WONDERS  
HISPANITAS  
PATRICIA  
ORIGINAL  
CLARKS  
24 HRS.  
YANKO  
N.O.D.  
CATS  
LODY  
MANAS  
STONEFY

ARRASATE Biteri Etorbidea 13  
Tel.: 943 79 21 71

BERGARA Barrenkale 9  
Tel.: 943 76 22 86

MANAS DESIGN

MAYTE

LORADENDA

Otalora kalea, 18  
20.500 Arrasate  
Tel.: 943 77 14 65  
www.goiena.net/blogak/mayte

Astelehenetik ostiralerako: 9:30etik 20:00etara  
Larunbatetan: 9:30etik 15:00etara  
Eguerditan zabalik egoten da.

UGARAN  
Jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

NATUR HOUSE Dietetika eta Elikadura Gabon zoriontsuak!!!

KONTSULTA DOHAINIK  
Zatoz eta konpromisorik gabe galdeitu.

EDURNE ARKAUZ  
Dietetika eta Elikaduran Diplomatua

Maalako Errabala 27, behe Arrasate Tel.: 943.79.04.34

**SANTAMAS KOMISIÑUE**

Irudian, Santamas Komisiñuko hainbat kide -26 dira, guztira-, Ferrerias kalean.

MONDRABERRI

# "Santamas Komisiñue sekula baino osasuntsuago dago"

**Azkeneko lau urteetan ez bezala, herriko hainbat kultura talderekin eta Udalarekin elkarlanean antolatu dituzte Santamasak**

MONIKA BELASTEGI

**Gogo betez dagoela dio Komisiñuek. Ez da ezer falta Santamas egunerako eta jai herrikoi horrekin goza dezatela opa diete herritarrei.**

Lehengora itzuli dira Santamasak: Komisiñuek, herriko 16 bat kultura taldeek eta Udalak elkarlanean antolatutako egitarauaz gozatu ahal izango dute herritarrek. Hiru aldeak

ados egon dira Santamasak azkeneko 30 urteetan antolatu diren modu berean antolatzeko, eta hitzarmena ere sinatu dute hori horrela izateko. Azkeneko lau urteetan, hori ez da posible izan, Santamas Komisiñuaren esanetan, "Udalean jaiak antolatzeko gure prestutasuna erakutsi arren, gauzak nola egin erabakitzeko orduan aldea nabarmena zelako".

**ELKARLANA, JAIEN MESEDERAKO**  
Komisiñuek dio elkarlan hori jaiaren mesederako izan dela eta "herritarrak

berriz ere jaia hartzeko gogoz" daudela uste du. Bestalde, jai estetikoak egitea "erraza" dela uste du Komisiñuek, eta benetako jaiak "jendeak parte hartzen duen horiek" direla argi dute. Beharrezkotzat jotzen dute jaiak antolatzen zein jaiez gozatzen herritarrek parte hartzea. Aurten, halaxe

izango da, eta egitarauan bertan nabari da hori; Komisiñuko esanetan, egitarauan islatzen da herriko taldeen ilusioa, egitarauan bertan daude guztiak: "Azken lau urteotan ere, herriko jai diren aldetik, parte hartu nahi izan dute kultura taldeok, eta hainbat kalera atera dira, baina egi-

tarautik kanpo, giroa euren aldetik alaituz, jaiei eustearen aldekoak zirelako". Aurten, esandako taldeok egitarauan bertan daude, eta jaiak antolatzen jardun dute. "Azken batean, betidanik Santamasak antolatzen jardun duten elkartea eta taldeak dira, eta talde berriren bat ere badago, gaztetxea, esaterako", Komisiñukoek azaldu dutenez.

**HAINBAT EKITALDI, BUELTA**

Azkeneko lau urteetan bertan behera lagata zeuden hainbat ekitaldi egitaraua bueltatu dira aurten,

besteak beste, txerri eta larrain dantzak eta herri bazkaria. Azken batean, Santamas Komisiñuak argi erakutsi du sekula baino hobeto dagoela, osasun betez, eta hori, antolaketan ez ezik, Komisiñue osatzen duten lagunen kopuruan nabari da; 26 lagun dira taldean, hainbat, berriak.

Azkenik, arrasatear zein debagoiendarrei Santamasetan ondo pasatzeko dei ere egiten die Komisiñuek: "Herritarrak implikatzen diren jai herrikoia delako eta sekulako giroa egoten delako".

**Izan zoriontsu 2008 urtean !!!**



**LEINTZ GARRAIOAK S.L.**

Telleria 4-1. pabilioia - Markulete industrialdea  
**20500 ARRASATE**

Tel : 943 71 27 07 / Faxa : 943 71 17 69

e-maila : leintzgarraioak@leintz.com    www.leintz.com



*Eraman dotoretasuna  
zure etxera*



Zubillaga auzoa 1 OÑATI  
Tel.: 943 71 63 22  
Faxa: 943 78 15 51

**ALDEDI**

# Aukeratu zuk **nahi** duzuna

Kontratatu **2 linea,**  
**eta 1 bakarrik ordaindu\***



eta eraman  
2 mugikor

**0 €** -ren  
truke

euskaltel  
zuretzat



**Nokia**  
**6300**

- Kamera
- Mp3a
- Bideo-erreproduzitzalea / -grabagailua



**Samsung**  
**E390DUKE**

- Kamera
- Mp3a
- USB konexioa



**Alcatel**  
**OT-C717**

- Kamera
- Mp3a
- Bideo-erreproduzitzalea / -grabagailua

# 2X1

Kontratatu **2 linea,**  
**eta 1 bakarrik ordaindu\***

eta eraman 2 mugikor o €-ren truke

**ROUTER**  
**COMUNICACIONES, S.L.**

**Euskaltelen Banatzaile Ofiziala**

Errebal, 15, Eibar, 200800369  
Biteri Plaza, 4, Arrasate, 200712781

\*2008ko urtarrilaren 15a baino lehen egindako kontratazioentzako balio duen sustapena. Alta emandako egunaren hurrengo sei hilabeteetan ezarriko da deskontua. Mugikorren bi lineek faktura berean egon behar dute. Gutxien gastatzen duen linearen kontsumoa hurrengo hilabeteko fakturaren guztizko kontsumoa itzuliko da. Unika, Nire Ordua eta Aurrezki Kontratako tarifeak bateragarría sustapen hau. Kontratatuako linea bakoitzeko, 24 hilabetez irauteko konpromisoa. Mugikorraren PSPak 2008/01/15 arte balio du, Euskaltelen Leihoko/Hautaketaren bezeroentzat. Hilean gutxizenee 6 € kontsumitzeko konpromisoa Alcatel OT-C717-rekin, eta 15 € beste bi modeloekin. Ale-kopuru mugatua: Samsung E390, Nokia 6300, Alcatel OT-C717: 3.000 unitate.

**JOMA**

*Urte Berri on!*

**DIRU-KUTXAK, POSTONTZIAK,  
GILTZAK SAILKATZEKO ARMAIRUAK...**

**JOSE MARIA GALLASTEGUI Y CIA, S.A**  
Gipuzkoa Etorbidea, 32  
20500 ARRASATE



TXERRIA

# 'Gurruntxi'-k arrasatearren eta bisitarien arreta lortuko du

Azken urteetan bezala, Araba aldetik ekarriko dute txerria; aurtengoak bi urte pasatxo eta 200 kilo inguru ditu

MIRIAN BITERI

Ez da erraza tamaina horretako txerri bat ibarrean topatzea. Beraz, Araba aldera joan behar izan dira berriro ere antolatzaleak eguneko erregina topatzeko. *Gurruntxi* du izena.

Lasai asko dago oraindik *Gurruntxi* txerria, Miranda de Ebro ondoan dagoen Calcedo Yuso herriko baserri batean. Ez du sumatzen Santamas bezperan bidaia egingo dueña Arrasateraino.

Santamas Komisiñukoa hilaren hasieran jarri ziren harremanetan Arabako Larrea herriko Jose Luis Gurendez Uriarterekin. Abereak erosi eta saltzen ditu horrek. Jakinarazi duenez, lehenengo aldiz du Arrasateko txerria bilatzen ardurra. Bada, *Gurruntxi* topatzea ez zaiola larriki kostatu esan du.

BERREHUN KILOKO EMEA

Emea da eta 200 kilo inguru ditu. Bi urte beteta ditu dagoeneko aurtengo Santamasetako erreginak. Denbora horretan, mimo handiz zaindu dutela azaldu du Gurendezek. Bereziki, barazkiak eta irina jan du. Garagar eta arto-irinarekin elikatua izan da.

Santamas Komisiñukoak arduratuko dira *Gurruntxi* Debagoienera ekartzeaz. Hilaren 21ean joango dira bila, eta, Arrasatera iritsi bezain pronto, Herriko plazara ekanriko dute.



Santamasetako erregina izango da aurten ere txerria.

ANDER GILLENEA

Erakusketa 18:30 alde-  
ra hasiko da. Txerria era-  
kuskai dagoen bitartean,  
zozketarako txartelak sal-  
duko dituzte jai horren  
antolatzaleek, euro baten  
truke. "Prezioa sinbolikoa

da. Azken finean, zozketa-  
ren helburu nagusia jaia  
girotzea da", azaldu dute  
Santamasetako Komisiñu-  
koek. Hilaren 22an ere  
txartelak erosi ahal izan-  
go dira, eguerdira arte.

Aurten, mila bat txar-  
tel egin dituzte antolatzai-  
leek. Bada, normalean,  
erdia baino ez dela saltzen  
jakinarazi dute. "500 edo  
600 bat erosten dira", azal-  
du dute.

Zozketaren ordua alda-  
tu dute. Orain arte, Santa-  
mas eguneko eguerdi par-  
tean egiten zen. Aurten  
animalia arratsaldez zoz-  
ketatzea erabaki dute,  
"bestela, jendea ez da-eta

enteratzen". Hala, larrain  
dantza amaitu ostean izan-  
go da zozketa, 20:00ak alde-  
an. Irabazoleak bi aukera  
izango ditu: txerria har-  
tzea edo, trukean, 500 euro-  
ko saria jasotzea. "Irabaz-  
leak dirua nahiago izaten  
du", diote.

Bi zenbaki aterako  
dituzte, lehenengo ager-  
tzen ez bada. Egunkarie-  
tan eta Monte tabernan  
aurkituko ahal izango dira  
bi zenbaki horiek.

**'Gurruntxi' txerriak bi urte ditu  
eta 200 kilo inguru pisatzen ditu,  
eta emea da.**

**Baraziak eta irina jan du txerriak  
denbora horretan; garagarra eta  
arto-irina, hain zuzen**

**MENDIZABAL** *okindegia*

*egunero zure alboan!*

**ARRASATE**  
Seber Altube 2  
943 79 89 60

**FRUTA ETA BARAZKI AZOKA**

# Ortutik plazara ekarriko dute baserritarrek etxeeko onena

Etxean egindako eta ustiatutako produktuak erakutsi beharko dituzte baserritarrek Santamas eguneko azokan

ARANTZAZU EZKIBEL

**Iaz baino postu gutxiago jarriko dituzte aurten; 20, hain zuzen. Postua jarriko duten hainbat baserritar Arrasatekoak izango dira; baita ibarreko beste herrietakoak ere**

**S**antamas eguneko zita garrantzitsu bilakatu da Seber Altube plazan egiten den fruta eta barazki azoka. Aurten ere, herriko eta inguruetako baserriatik ekarritako produktuak izango dira ikusgai eta salgai azokan.

Iazko urtearekin alde-ratuz, aurten, postu gutxiago jarriko dituzte; iaz, adibidez, 25 postu jarri zituzten. Aurten, 20 postu egongo dira; hala ere, kalitatezko produktuak izango direla ziurtatuta dago. Produktu freskoak; ortutik plazara ekarritakoak, duda barik.

**LEHENENGKO, IKUSGAI**

Goizeko bederatzi eta erdietarako ipini beharko dituzte postuak baserritarrek. Lehenengo, produktuak ikusgai egongo dira; hau da, ezin izango dituzte saldu. "Hori da, behintzat, guk esaten dieguna", esan digute Arrasateko Udaleko arduradunek.

Hamaiketan hasita, behin epaimahaiaik bere lana egin duenean, saltzen hasteko baimena izango dute baserritarrek.

Denetariko produktuak aurkituko ditugu Santamasetako azokan: toma-



Arrasateko Santamas feriako irudi bat. Aurten ere ortuko onenak eroango dituzte baserritarrek feriara.

XABIER URTEZLAI

teak, letxugak, porruak, arrautzak, patatak, eskarolak, azak, baserriko ogia, eta abar. Produktuak etxean egin eta ustiatutakoak izan behar dira, ez industrialak. Seber Altube plazara hurbiltzen direnak izango dute, bai, zer erosia.

**EPAIMAHAIAREN LANA**

Epaimahaiaik baserritar bakoitzak ekarri dituen produktuak ikusi eta baloratu beharko ditu. Beste urte batzuetan bezala, aur-

ten ere, epaimahaiko kideak baserri auzoetako alkateak izango dira. Haien esku geratuko da saridunak nortzuk diren erabakitzeari; besteak beste, kalitatea, kopurua eta aurkezpena izango dute kontuan.

Sari banaketa ekitaldia 13:00etan izango da, baina non egingo den erabakitzeko dago oraindik. Ondoko sariak banatuko dituzte: lehen saria, fruta eta barazkietan, 250 eurokoia izango da; eta bigarrena,

na, 200 eurokoa. Gainera, ogi postu aipagarriren bat saria emateko aukera ere egongo da. Iazko ekitaldian, honako hauek izan ziren irabazleak: Aramaiko Jose Lorbide eta Mutrikuko Antonio Iparragirre. Aurten ere, azokan egoteko izena eman dute.

**GEHIENAK, ARRASATEKOAK**

Parte hartuko duten baserritar gehienak Arrasatekoak dira: besteak beste, Etxebarri, Bidasoro, Urki-

mendi, Gorostiza, Enuste, Aranguren, Errastik eta Ikutixo baserriatkoak.

Bestalde, Aramaio, Gabiria, Bergara, Gatika, Segura, Berriz, Eskoria-tza, Mutriku, Mallabia eta Igorretik ere etorriko dira baserritarra.

Duda barik, tradizio handiko feria da Arrasateko. Baserritarrek eta erosleek produktua ondo zaintzen dute, eta kalitateak, ez du hutsik egiten Santamas egunean.

## ZABALA oinetakoak

59 urtetan elkarrekin ibili gara  
Ospa ditzagun Santamasak

Erdiko kalea 18 • Tel.: 943 79 14 27

# Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10  
Tel.: 943 79 52 50

## JOSE ANTONIO

GIZONEZKOEN ILE-APAINDEGIA

### Gabon zoriontsuak!

Otalora lizentziaduna 22 behea ARRASATE  
Tel.: 943 79 42 10




**Elgeta-Piel**

*Udazken eta  
neguko moda*

Domingo Iturbe 8  
**ELGETA**  
Tel.: 943 76 81 12

Martitzenetik zapatura:  
10:30-13:00 eta 17:00-20:00.  
Domeketan:  
11:00-13:30.  
Astelehenetan itxita.



# NACEX

**ONDO PASAU SANTAMASETAN!**



Presazko zerbait eraman edo ekarri behar duzu?  
**UTZI GURE ESKU - GURE LANA DA**

**EUSKONACEX, S.A.**

SAN ANDRES AUZOA, AZERI 7, 20500 ARRASATE TEL.: 943 79 92 77 OROKORRA: 900 100 000  
[www.nacex.com](http://www.nacex.com)

**GANADU AZOKA**

# Santamasetako Komisiñuaren eskutik, ganadu azoka, Garibain

Aurtengo azokak dakarren berrikuntza nagusiena leku aldaketa da: Garibai Etorbidean egingo da aurten

MIREIA BIKUÑA

**Azken lau urteotako etenaren ondoren, Santamasetako Komisiñuek antolatu-ko du Garibai Etorbi-dean egongo den ganadu azoka, beste-ak beste.**

**G**ogoarekin heldu dio Santamasetako Komisiñuek azoka antolatzeko lanari. Azken bost urteotan antolakuntzatik kanpo egon ondoren, besteak beste, ganadu erakusketa antolatuko dute. Zapatuko azokako nobedade nagusia tokia izango da, ganadu erakusketa Garibai Etorbidean egingo da-eta.

**ABEREAK**

Hainbat arrazatako behiak ekarriko dituzte baserritarrek zapatuan: pirenai-kak, blondak, suitzak eta asturiarrak. Halaber, bi asto mota egongo dira ikusgai, asto arrunta eta Enkarterrieta astoa, eta euskal arrazako pottokak ere



Aurtengo ferian ere ikusmin handia sortuko dute abereek, nagusi zein txikienen artean.

XABIER URTZELAI

egongo dira. "Horiek guztiak taxi geltokiaren ondoan jarriko ditugu, lotuta", esan dute antolatzaleek.

Beste abere batzuk ere ikusgai egongo dira: poniat, ahariak, oreinak, ardi latxak, sasi gorri arrazako ardiak, ardi txakurrak eta zazpi gorri arrazako ahuntzak. Abere gehienak ibarreko base-rrietakoak dira. "Partaide gehienak bailarakoak dira: Arrasatekoak, Bergarakoak, Aretxabaletakoak, Eskoriatzakoak... Bada, oreinak kanpotik ekarriko ditugu, gure inguruau ez daude-eta", azaldu digute Komisiñoko kideek.

**MINGAIN URDINA**

Mingain urdinaren gaitza dela eta, Santamasetako Komisiñuak azken unera arte ez du tratua egin base-rritarrekin. "Aurten, lana astunagoa izan da. Abenduaren 4an jakin genuen, inolako baldintza barik, erakusketan, edozein aberek izango zuela parte hartzeko aukera. Erabaki hark asko atzeratu du gure lana. Bada, dagoeneko guztia

gertu daukagu", azpimarratu digute antolakuntza taldekoek; "gainera, base-rritarrek ere ez digute inolako eragozpenik jarri erausketa antolatzeko orduan. Horregatik guztigatik, oso pozik gaude", gaineratu dute.

**Behiak, astoak, poniat, pottokak, zazpi gorri arrazako ahuntzak, ardi txakurrak, sasi gorri arrazako ardiak... egongo dira ikusgai Garibai Etorbidean**

**AURREKONTUA**

Aurtengo ekitaldirako, Santamasetako ganadu eta hegazti erakusketak antolatzeko 10.000 euroko aurrekontua erabili dute antolatzaleek, "orain, azokarekin disfrutatzeko momentua iritsi da".

## RESUSTA *Karrikiri*

Arrasatearren artean 150 urte baino gehiago.



Ondo pasa Santamasak!

HEGAZTIAK

# Bi urteko etenaren ondoren, hegazti azoka egongo da

Garibai Etorbidean egongo da ikusgai aurten hegaztien azoka, gainerako animalien azoka egongo den toki berean

MIREIA BIKUÑA

Hegazi-gripea erabat ahaztuta, hegaztiekin hain zuzen. Hartuko dute berriro ere Santamasetan. Guztira, 70 buru egongo dira ikusgai Garibai Etorbidean.

Azkeneko bi urteotan ezin izan da hegazti azokariak antolatu Santamasetan. Nahiz eta Euskal Herrian gaitzak ez zuen eragin, Eusko Jaurlaritzak prebentzio neurriak ezaurreti zituen, eta haietako bat izan zen hegazti bizien azokak eta erakusketa debekatzea. Hala, 2005ean eta 2006an, ez zen hegazti azokariak egin Arrasaten.

Bada, abenduaren 22an, hegazti erakusketa ikusteko aukera egongo da.

**HIRUROGEITA HAMAR BURU**  
Azken bi urteotako etenaren ondoren, gogoz antolatu du Santamasetako Komisiuak hegazti azoka. Hala, 70 buru ipiniko

ditzute erakusketa. "Oilarrrak, kapoiak, oilo txikiak eta abar ekarriko dituzte erakusketara; guztira, 70 buru inguru".

Hegazti azokan parte hartzen duten abere guztia Garibai Etorbidean kokatuko diren kaiotetan jarriko dira. Halaber, azokan parte hartuko duten baserritar gehienak ibarrekoak dira; hala, haien etxeetan hazitako animaliak ezagutzeko aukera

**Oilarrrak,  
kapoiak eta  
oilo txikiak  
egongo dira  
ikusgai**

**Partaideek  
dieta  
moduko bat  
jasotzen  
dute**



Hegaztien gripea erabat ahaztuta, oilarrrak ere egongo dira Santamasetan.

XABIER URTZELAI

egongo da. Gainera, ganadu erakusketa parte hartuko duten baserritarren antzera, hegazti feriako partaideek dirulaguntza jasoko dute ordainean.

"Kontuan izan behar dugu erakusketa dela. Hortaz, haien baserrietatik kalera abereak ekartzeko egiten duten ahalegina saritu egin behar da", azaldutu digute

Komisiñoko lagunek; "hala, dieta moduko batzuk banatzetan dizkiegu. Dirulaguntza txikiak dira, baina benetan eskertzen dituzte baserritarrek".

GOIZEAN

Abenduaren 22an, goizeko bederatzietarako egongo dira ikusgai hegazti era-kusketa buruak. "Base-rritar batzuk goizeko zortzietaarako etorriko dira; bada, abereak identifikatu eta ikusgai jarri orduko, erakusketa ikusteko ordurik onena bederatzietatik aurrera da", esan digute antolatzaleek.

Halako erakusketa bat antolatzeko, lan dezena egun behar da aurretik; bada, egunean bertan ere hantxe egongo dira antolatzaleak. "Egun horretako gure lana baserritarri ongietorria ematea eta abere bakoitza haren tokian jartzea da. Halaber, partaideek bakoitzarekin berba egiten dugu erakusketa-ren inguruan duen iritzia jakiteko". Hala, iritzia kontutan hartzen dira urte berriko azoka antolatzera-ko orduan.

Santamas egunean eguraldiak laguntzen ez badu, ganadu eta hegazti azokak toki berean egingo dira. "Hainbeste abere tokiz aldatzea ezinezkoa da".

The advertisement features a stylized illustration of a person's head and shoulders. The person has short hair and is wearing a dark jacket. A large, semi-transparent orange circle is positioned behind their head, with the text "Ondo pasa Santamasetan!" written in white inside it. Below the head, the word "OPARIAK" is written vertically. The background is a textured, light-colored surface with several smaller orange circles scattered around. In the bottom right corner, there is a logo consisting of a stylized orange and black geometric shape resembling a flower or a cross. To the left of the logo, the brand name "kapikua" is written in a large, lowercase, rounded font. Below "kapikua", the words "OPARIAK ETA OSAGARRIAK" are written in a smaller, all-caps font. At the very bottom, the address "Doctor Bañez 4. San Andres. Arrasate" is printed in a small, sans-serif font.

## ARTISAUAK

# Jokin Zaitegi plaza izango da artisau lanen erakusleihoa

Goizez ikus ahal izango dira postuak; aurten, 45 guztira

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Santamasen beste osagarri bat da artisau erakusketa. 45 postu ipiniko dituzte Jokin Zaitegi plazan, eta artisauak lanean ikusteko aukera izango da.**

**O**rain dela 30 urte antolatu zuten estreinako aldiz Santamasetan artisau azoka eta, zenbait urtean huts egin arren, oihura bihurtu da Jokin Zaitegi plazako hitzordua.

Urtetik urterea, gero eta gehiago dira Arrasatera gerturatzent diren artisauak. Tolosatik, hango azokarako erabiltzen dituzten 45 stand ekarri eta ipiniko dituzte aurten. Bertan, Gipuzkoako, Bizkaiko, Arabako eta Nafarroako arti-

sauk erakutsiko dituzte euren eskulanak. Iparraldekoak inoiz eterri badira ere, aurten ez dira izango.

Goizez, 10:00etatik 14:00etara bitartean, izango du jendeak azoka bisitatzeko aukera.

## Ibarreko artisauen artean, bitxigileak dira gehienak

**Artisauen lanak ikusteaz gain, erosteko aukera ere izango da**

### IBARREKO ARTISAUAK

Serigrafia, tapizak, bitxiak, larruarekin egindako lanak, albokak, lore lehorrek, tailak eta egurrarekin egindako lanak, otarrok, koadernatze lanak, melokotoi hezurrekin egindako eskulanak, umeenda jostailuak, abarkak...

Ibarreko artisaurik ere ez da faltako azokan. Herriko askok dihardute eskulanetan, eta euren lanak erakutsiko dituzte: taila taldekoen lanak; Imanol Aranbururen serigrafiak, Idoia Ibañez tapizak; Amaia Otaduiak, larruarekin egindako lanak; Mairder Altzelaik, gakorratze-kin egindakoak; Pedro Pachecoren egurrezko etxeak; Felix Barcinak, ezpelez egindako lanak; eta Jesus Gruzeta, Inma Delgado, Nerea Kerexeta, Aner Arregi eta Dunixe Royoren bitxiak.



Tailagile bat egurra lantzen iazko Santamasetan.

XABIER URTZELAI

### ERAKUSKETA ETA SALMENTA

Antolatzaleen esanetan, Jokin Zaitegi plazara, babesera, jende asko gerturatzten da.


Artisauak euren lanak erakustera etortzen badira ere, egindakoa saltzeko aukera ere izaten dute. Gai-

nera, Gabon jaien aurreko egunak aproposak izaten dira horretarako, betiere, bakoitzak egiten dituen artisau lanen arabera. Izan ere, errazago salduko du bitxiak edo jolasak egiten dituenak uztarriak lantzen dituenak baino.

**Koro Zabaleta**



Zerkaosteta 4. Arrasate. Tel.: 943 79 57 21  
korozabaleta@yahoo.es

**Gabon zoriontsuak!**

TRIKITILARIAK

# Trikitixa eta pandero soinuak giroa alaitzeaz arduratuko dira

Trikitixako eskolako 40 bat ikasle eta ikasle ohi kalejiran abiatuko dira, Jokin Zaitegi plazatik, eguerdi partean

MIRIAN BITERI

Trikitixa eskolako atarian bilduko dira eta, handik, Jokin Zaitegi plazarantz joango dira trikitilarriak eta pandero-joleak. Santamas egunean, erdialdeko kaleak eta azokak girotzea dute helburu nagusi.

Azken urteetako ibilbide bera egingo dute, hilaren 22an, trikitixa eskolakoek. Hango arduradun Maixa Lizarribarrek jakinarazi duenez, 40 bat lagunek hartuko dute parte kalejiran. "Ikasleez gain, kanpoeko jendea ere etortzen da gurekin jotzera. Ikasle ohiak dira horiek", azaldu du. Partaide txikienak 6 urte baino ez ditu.

Jokin Zaitegi plaza atzean utzi eta erdialderantz abiatuko dira. Ibilbide erdian, indarrak berreskutzeko geldiunea egingo dute. Ohiturari jarraituz, txistorra jango dute Monte taberna parean.



Erdialdeko kaleak girotuko dituzte hamazazigarren aldiz trikitilariek eta pandero-joleek.

XABIER URTZELAI

Ohikoa den bezala, denok batera egingo dute ibilbidea. Horren harira, "behin saiatu ginen talde ezberdinak egiten, baina konplikatu samarra zen hori antolatza eta, beraz, batera joatea erabaki genuen", adierazi du Lizarribarrek.

Jaiaz gozatzeko astia geratzen zaiela ere esan du: "Gazteek parranda egiten dute bezperan, eta Santamas egunean ere, konpro-

miso ugari izaten dituzte partaideek". Hori dela-eta, 14:00etan, jotzeari uzten diote Seber Altuben, txerria ondoan dutela.

## Kalejira berria joko dute aurten

Santamas egunerako, gogor entseatzen ari dira dagoeneko Arrasateko Trikitixa Eskolakoak, primeran atera behar da-eta guztia egun horretan.

Betiko pieza alaiak joko dituzte trikitilariek eta pandero-joleek. Alegia, erraz abesten eta dantzatzen diren horietakoak. Bada, urtero, ibilbidean zehar, abesti beriren bat sartzen saiatzen direla azaldu du Maixa Lizarribarrek.

"Aurten, kalejira batekin gogor gabiltza entseatzen. Apur bat kostatzen ari zaie, baina, ilusio handiz ibiltzen direnez, ez dute jotzeko arazorik izango", jakinarazi du trikitixa eskolako arduradunak.



Juan Carlos Gerra 1 ARRASATE  
Tel.: 943 79 98 06



**TXOTXONGILOAK**

# Corrado Masacci italiarraren txotxongiloak Kulturaten ikusgai

'Txotxongiloaren artea' izenburuko erakusketa ikusgai izango da abenduaren 21etik urtarrilaren 28ra

**EDU MENDIBIL**

**Sortzez italiarra den arren, dagoeneko 25 urte daramatzatza**  
**Euskal Herrian Corrado Masaccik. Azken 13 urteotan Ondarroan bizi da eta Gabonetan Txotxongiloaren artea izenburuko erakusketa ekarriko du Arrasatera.**

**G**uztira, 100etik gora txotxongilo erakustiko ditu Masaccik Arrasateko kultur aretoan. Erakusketa egubakoitzean, abenduaren 21ean, zabalduko dute Kulturaten eta datorren urtarrilaren 28ra arte izango da ikusgai

Gaston Baty txotxongilolarri frantsesaren aipu hau jarri du Masaccik Kulturaten: "Giza gorputzaren adierazpena gelditzen den mugan hasten da txotxongiloaren mundua".

Erakusketak lau zati dauzka: txotxongiloaren mundua; kreazioa-igelak; zirkoa eta txotxongiloak eta, azkenik, txotxongilo

antzerki txikiak. Material hau guztia batera erakusten duen lehenbiziko aldia da Masaccirentzat.

**IBILBIDE LUZEA**

Ravenako Unibertsitatean Arte Ederretako ikasketak burutu ondoren, kultur dinamizatzaile lanetan hasi zen Corrado Masacci. Betidanik gustatu izan zaizkio txotxongiloak eta poliki-poliki hasi zen haiengana hurbiltzen. Txotxongilo ugari egin ditu bere ibilbidean zehar eta hain zuen ere ibilbide horren gainbegiratua da Arrasaten egongo den erakusketa. Masacciren erakusketa antologikoa dela esan genezake: "Orain dela 28 urte egin nuen lehen txotxongiloaz gain, ordutik hona egindako lana eraku-

**Ehunetik gora txotxongilo erakutsiko ditu Masaccik Kulturaten**



Erakusketa ikusgai izango den txotxongiloetako bat.

CORRADO MASACCI

tsiko dut, hainbat kasutan oraindik jende aurrean era-kutsi ez dena. Txotxongiloekin landu izan dudanaren laburpena edo emaitza da erakusketa, bai". Italiar-euskalduna aski ezaguna da gure artean. Izan ere, Oñatin, Bergaran edo Arrasaten bertan erakusketak egin izan ditu aurretik. Bergaran, Nazioarteko Txotxongilo Jaialdian parte hartu izan du.

**UNE MAGIKOAK**

Txotxongilozale amorrata, dokumentazio lana eta han eta hemen egiten dena jarraitzea du gustuko. Ahal duen bakoitzean txotxongilo jaialditara hurbiltzen da: "Izaki fantastikoak dira txotxongiloak. Haien bidez aurkitu dut zelan ezagutu mundua eta zelan komunikatu munduarekin. Haurrek une magiko bat moduan bizi dituzte eta txotxongiloekin lanean antzeko gauza sentitzen dut". Massaciren bidaia lagunak Kulturaten izango dituzue urtarrilerera arte. Bisita gidatuak egiteko aukera ere izango da.

## GABONETAN OPARI TU EDERTASUNA!

*angela*

Onartzen dugu, gure zentrora etortzeari uzten badiozu,  
**gure errua izango da.**

Zenbat eta fotodepilazio saio gehiago egin, orduan eta gutxiago beharko dituzu.  
**Besterik gabe.**

- 1. aukera: 35€/saioko:** Begitarrea, hatzak, goiko ezpaina, alba lerroa, masailak, kokotsa, patillak, sudurra.
- 2. aukera: 55€/saioko:** Besagaina, besapeak, kokotsa,izar gaina, garondoa, izterrondoia, lunbarrak, eskuak edo hankak.
- 3. aukera: 95€/saioko:** Hanka erdiak, abdomena, besoa, aurpegia, ipur-masailak, sorbalda, bularra, pubisa.
- 4.aukera: 195€/saioko:** Bizkarra, hankak osorik, torax guztia.

BEZA barne. Prezioak saioko eta zonako.



Angela Estetika zentrua Ferrerias kalea 35 Arrasate Tel.: 943 79 88 23

**ondo pasa Santamasak!**

[www.angelafotodepilacion.com](http://www.angelafotodepilacion.com)

lo artean. Ondarean  
an bizi da eta Gabo-  
netan Txotxongiloa-  
ren artea izenburuko  
erakusketa ekarriko  
du Arrasatera.

**G**uztira, 100etik gora txotxongilo erakutsiko ditu Masaccik Arrasateko kultur aretoan. Erakusketa egubakoitzean, abenduaren 21ean, zabalduko dute Kulturaten eta datorren urtarilaren 28ra arte izango da ikusgai

Gaston Baty txotxongilolarri frantsesaren aipu hau jarri du Masaccik Kulturaten: "Giza gorputzaren adierazpena gelditzen den mugan hasten da txotxongiloaren mundua".

Erakusketak lau zati dauzka: txotxongiloaren mundua; kreazioa-igelak; zirkoa eta txotxongiloak eta, azkenik, txotxongilo

Ap te Ederretako masketak burutu ondoren, kultur dinamizatzaile lanetan hasi zen Corrado Masacci. Betidanik gustatu izan zaizkio txotxongiloak eta poliki-poliki hasi zen haiengana hurbiltzen. Txotxongilo ugari egin ditu bere ibilbidean zehar eta hain zuzen ere ibilbide horren gainbegiratua da Arrasaten egongo den erakusketa. Masacciren erakusketa antologikoa dela esan genezake: "Orain dela 28 urte egin nuen lehen txotxongiloaz gain, ordukit hona egindako lana eraku-

**Ehunetik gora  
txotxongilo  
erakutsiko ditu  
Masaccik  
Kulturaten**



Erakusketa ikusgai izango den txotxongiloetako bat.

## GABONETAN OPARITU EDERTASUNA!

Onartzen dugu, gure zentrora etortzeari uzter  
**gure errua izango da.**

Zenbat eta fotodepilazio saio gehiago egin, orduan eta gutxiago behar  
**Besterik gabe.**

- 1. aukera: 35€/saioko:** Begitartea, hatzak, goiko ezpaina, alba lerroa, masailak, kokotsa, patillak, sudurra.
- 2. aukera: 55€/saioko:** Besagaina, besapeak, kokotsa,izar gaina, garondoia, izterrondoia, lunbarrak, eskuak edo hankak.
- 3. aukera: 95€/saioko:** Hanka erdiak, abdomena, besoa, aurpegia, ipur-masailak, sorbalda, bularra, pubisa.
- 4.aukera: 195€/saioko:** Bizkarra, hankak osorik, torax guztia.

BEZA barne. Prezioak saioko eta zonako.

**ondo pasa Santamasak!**

Angela Estetika zentrua Ferrerias

www

**TXERRI DANTZA ETA LARRAIN DANTZA**

# Arrasateko dantzariak, plazara

**Herriko 60 bat dantzarik hartuko dute parte**

EDU MENDIBIL

**Santamas egunean herriko dantzariekin tradizio handiko bi dantza eskainiko dituzte: Txerri dantza eta Larrain dantza. Hitzordua Herriko Plazan, 19:00etan.**

**O**rain dela 10 urtetik gora sortu zuten Txerri dantza. Helburua dantza herrikoia eta erraz dantzatzeko egitea izan zen, herriar gaztiek parte hartzeko aukera izan zezaten. Santamasetako protagonista nagusietako baten, txerriaren inguruaren eginiko dantza da, Arrasateko *labela* duena. Dantzariak ez ezik, trikitilarik, txalapartariak eta gaitariak elkartu ziren dantza sortzeko eta parte hartzeko. Musikaren eta dantzaren ekimena Jose Ramon Vitorarena da. Ekimenak arrakasta dezente izan zuen eta San-

tamas egunaren aurretik egin izan diren ikastaroetan jende ugari hartu dute parte. Aurten urrian ekin zioten entseguetik eta 20 lagun inguruk jardun dute. Gutzira, Arrasateko 60 bat dantzari aterako dira zaptauan.

Amaia Morras Lore Gazteak dantza taldeko kidea da. 25 urte pasatxo

darama dantza taldean. Bere hitzetan, "jende asko animatzen da egun horretan dantzatzera eta gauza ederra da herrikit sortutako dantza batek horrelako harrera izatea. Ikastaroetan jende askok parte hartu izan du eta etorkizunean jende gehiago hartzeko gertu gaude... Zenbat eta jende gehiago animatu, are eta hobeto".

#### Dantza herrikoia, erraz dantzatzeko modukoa da Txerri dantza

LARRAIN DANTZA  
Larraintzako dantza herrikoia, erraz dantzatzeko modukoa da Txerri dantza

**Larrain dantza Lizarrakoa da, Euskal Herri osoan ezaguna**

Hotzari aurre egiteko eta egunari amaiera borobila emateko ez da aukera txarra lagun artean dantzan egitea.



Larrain dantza oso ezaguna da Euskal Herri osoan.

ANDER GILLENEA



Txerri dantza sortzeko orduan Arrasateko kultur talde ezberdinek hartu zuten parte.

ANDER GILLENEA

**SARA**

# MERENDERUE

**EUSKAL HERRIAREN ALDE LANEAN ETA SUFRITZEN ARI DIRENEI LAZTAN HANDI BAT ETA URTEAN ZEHAR GURE ARTEAN IZAN DIRENEI ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!!**

**Tel.: 943 77 15 86 • ARRASATE**

**HERRI BAZKARIA**

Lau urte dira herri bazkaririk egiten ez dutela, baina aurten berriro ere antolatuko dute, Santamas Komisiñuaren esku.

ANDER GILLENEA

# Menu goxoa eta sorpresa ugari Santamasetako herri-bazkarian

Santamas Komisiñuak antolatu du herri bazkaria lau urteko etenaldia eta gero

MAIER URANGA

Lau urtez herri bazkaririk egin ez den arren, aurtengoan, Santamas Komisiñuak antolatuta, berriz ere urteroko ohitura den herri bazkaria ospatuko da Santamas egunean.

**U**rteetan dihardu Arrasateko Santamas Komisiñuak Santamas egunean eta bezperan ospatzenean diren ekintza gehienak antolatu eta gestionatzenean. Aurreko urteetan Udalarekin izandako adostasun ezagatik, Santamas Komisiñuak gel-

di egon da, antolaketan parte hartu barik, baina aurten, ostera, gogotsu eta aspaldiko ilusioa berreskuratz ibili da Santamas jaiak prestatzenean. Aspaldiko partez, herri bazkaria egingo dute aurtengoan, eta jadanik egiten ez zen txerri dantza ere sartu dute egitarau barruan.

**HERRI BAZKARIA**

Abenduaren 22an izango da Santamas Komisiñuak antolatu duen Santamas eguneko herri bazkaria. Jende mordoa bildu izan da urtero bazkaltzeo, eta aurten ere, 700 pertsonarentzako adinako kabida egongo da Uarkape udal pilotalekuaren.

Santamas Komisiñoko Haritzek esan digun moduan, "Komisiñoak urteetan antolatu ez diren ekintzak berreskuratu nahi ditu, lau urtez edo, ez du Arrasateko Udalak herri bazkaririk egin. Beste batzuk ere ez, eta gure asmoa, oraingoz, lehenago egiten genituenak berriz ere egitea da, berri-

kuntzetan pentsatu barik". Izan ere, herri bazkari aurretik egiten den txerri dantza ere aurten berriz egingo da kultura taldeean eskutik. Hauek ere, azken lau urteetan, ez dute jaien gestioan parte hartu.

**SORPESAK**

Herri bazkaria eta gero, sorpresa ugari egongo dira. Aurtengoa Santamas Komisiñarentzat urte berezia izango da, lau urteko etenaldia eta gero, parte hartzeko aukera izan dutelako. Beraz, gerturatu behar duzenok, oinetako erosoak eraman, ondo pasatzeko gogoarekin joan, eta on egin!

## Herri bazkarirako txartelak eguenean jarri zituzten salgai, Elkar, Biona eta Monten

Eguenean jarri zituzten salgai herri bazkarira joateko txartelak. Erdiko Kalean dagoen Elkar liburu-dendan, Biona tabernan edo Monte tabernan daude, 15 eurotara. Bazkaltzeko, ondorengoko menua dago iragarrita: hasteko, bi edo hiru sarrerako, paella gero, eta solomoa saltsan, ostean. Hau gutxi ez balitz, bukatzeako, postrea eta, nola ez, kafea eta kopatxoa, Santamasak ospatzeko. 700 pertsonarentzat dago lekua, beraz, azkar ibili, herri bazkarira joatea nahi duzenok.

Bazkaria 14:30 inguruan izango da, Arrasateko Uarkape Pilotalekuaren. Baino presarik gabe gerturatu, aurrez abisatzen dugu-eta Santamas Komisiñuak sorpresa ugari dituela bazkaldu eta gerorako. Beraz, ondo pasa eta on egin!

**LANDALUZE**  
HARTEGIATURDAITEGI  
STURRIOTZ KALEA, 7 TEL. 943 79 14 86  
ARRASATE

Ondo pasa Santamasak!

**Monte**  
taberna

Maalako errabala 2  
Tel.: 943 79 20 56

**King's**  
Ile apaindegia

Ondo pasa  
Santamasak!

Zarugalde 23.  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 84 88

# AMAGARA

Erdiko kalea 54. Arrasate. 943 79 09 09

**GABONETAN EDERTASUNA OPARI**

**EDERTASUNA: ARIMARA IRISTEN DEN OPARIA**

- Tratamendu estetikoak: gorputz eta aurpegi tratamenduak, manikura iraunkorra eta betile-tindaketa.
- Laserra ((IPL-Alejandrita)
- Depilazio elektrikoa.
- Solariuma- Hidromasajea.
- Aparatologia aurreratua.
- Medikuntza estetiko terapiak: betetzeo gaiak, Vistabel (Botox), aurpegiko eta gorputzeko mesoterapia




**Zorionak eta jai zoriontsuak opa dizkizugu!**

R.P.S. 297/05

## Lorenzo M. Joosten M.S.

Medikuntza naturalean espezialista (Erreg. zenb. 9700118) eta Spainiako Federazio medikuntza alternatiboko lehendakariordea. (FEMALT).



- Laguntza aringarriak, minbiziak eragiten duen bigarren mailako efektuentzat
- Buruko mina, muskularra eta hezurretakoa
- Insomnioa, estresa eta menopausia
- Masajeak (Tuina - Sihatsu - Moxa)
- Alergiak eta defentsen handitzea
- Haurren hiperaktibitatea
- Sinusitisa
- etab.

Aldez aurretik deitu txanda hartzeko.



**Ondo pasau Santamasak!**


Aita Larroka kalea 8 (Gros) Donostia  
Tel.: 943 32 29 65

Arrasate Pasealekua, 29 Ezker behe, Arrasate  
Tel.: 653 133 281 • 943 792 913


# SANTAMASETAN EZ GAZ DANOK!




KEPA URRA




JON AGIRRE




JOSU URBETXEBAARRIA




LUIS MARI AZKARGORTA



PREMIN SANPEDRO




TXUS GOIKOETXEA



JOSU ARKAUZ




UNAI PAROT




ARATZ GOMEZ



JOSE I. GAZTAÑAGA



JESUS MARI ZABARTE



JOSE GABRIEL URIZAR



IGOR LETONA



KRISTINA GOIRIZELAIA



AMAIA ARRIETA



GORKA AZTIRIA



GAIZKA OLABARRIETA



NATALE LANDA



ERREFUXIATUAK

## ETXLEAN NAHI DITU GU!

Arrasateko Alde Zaharreko tabernak:  
**Iratzi, Iluntz, Ekaitz, Iturriotz, Biona, Basati, Jai-Zale, Muxibar, Dat**

BITERI PLAZAKO AZOKA

# Askotariko produktuak saltzen, 90 postu egongo dira Biterin

Biteri plazako postuak 10:00etan zabalduko dituzte eta, 14:30 arte, hainbat produktu erosteko aukera egongo da

JASONE ZABALA

Barazki eta fruta, eta ganadu eta artisautza lanen erakusketa ez diren beste produktu batzuk jarriko dituzte salgai Biteriko plazan. Guztira, 90 postu egongo dira, produktu askorekin.

**B**iterin ere egongo da zer ikusia aurtengo Santamasetan. Plaza berritu zutentik, bigarren urtea da bertan leku askotatik etorriko saltzaileen postuak jartzen direla. Azoka goizeko hamarrretan zabalduko dute, eta eguerdiko ordu bi eta erdiak arte egongo da zabalik, zerbait erosi nahi duenarentzat.

Egongo diren postuei dagokienean, aurten, 90 postu inguru ipintzeko eskakizuna jaso du Arrasateko Udalak. Leku askotako hainbat eta hainbat produktu ipiniko dituzte saltzen, pasa den urtean baino postu gehiago, gainera. Euskal Herri guztitik, Iparraldea barne, Errioxatik eta baita Kantabriatik ere etorriko dira produktuak saltzera.

Postu gehienek eztia, gazta eta ogia ipiniko dituzte salgai, baina beste hainbat gauza ere egongo dira, esaterako, lore ihartuak, zapore ezberdinako txokolatea, gaztainak eta intxaurrak, batzuk aipatzearren.

Ospe handia duten Tolosako babarrunak ere egongo dira, zuhaitz landare mota asko eta baita loreak ere. Iparraldetik ere etorriko dira, bertan eginda-



Egongo da zer erosi Biterin jarriko dituzten postuetan.

GOIENKARIA

ko produktuak saltzera, hala nola, patea eta hainbat kontserba mota. Ohi-koa den ardi gazta ez ezik, behi esnearekin egindako gazta ere egongo da, erosi nahi duen edonorentzat. Errioxa aldetik ere etorriko dira saltzaileak, bertako ogia, txorixoak eta pastelak ekartzera. Bizkaia aldetik, berriz, erroskila egileak etorriko dira, etxean egindako erroskila goxoak saltzera. Kantabriatik, kontserbako antxoa eta

atunak ekarriko dituzte. Aloe landarearekin egindako krema naturala salduko duen posturen bat ere egongo da.

**DEBAGOIENEKOEN POSTUAK**  
Kanpotik ez ezik, Debagoieneko jendeak ere ipiniko ditu postuak bere produktuak saltzen. Guztira, 10 postu inguru izango dira. Hainbat produktu salduko dituzte bertakoek jarriko dituzten postuetan. Besteak beste, Eskoriatzako

## Aurten Biteri plazan jarriko diren postu gehienak ogi, ezti eta gazta produktuen postuak izango dira

turroigile postu bat; Gabonak gertu egonda, aukera oso ona turroi mota asko dastatu eta erosteko. Barrena berotu nahi duenarentzat, berriz, Eskoriatzan egindako uxuala saltzen duen postu bat ere egongo da. Getariako txakolina ederra da, baina bertan egindako sagardoa eta txakolina dastatzeko aukera ere izango da, hain zuzen, Arrasaten bertan egindakoa. Janariez gain, Harreman GKEk (Gobernuz Kan-

poko Erakundea) belarritakoak, arropak... eta beste hainbat apaingarri, osagarri eta bitxi ipiniko ditu saltzen, beste herrialde batzuei laguntzeko dirua batu ahal izateko.

Aipatzeko da aurten ere gazta-dastatzea ekainera aurreratu zela, sasoi hobea delako gazzarentzat, eta Udalak eta Mondra futbol taldeak antolatu zuten. Egun hartan, gazzarekin batera, Errioxako ardoa ere egon zen.



**IRUROK. S. L.**  
**Eraikuntzak**

Ondo pasa Santamasetan!

ELKARRIZKETA BIXENTE PAGOAGA BASERRITARRA

# "Azken urteetan, asko aldatu dira baserri ohiturak"

JASONE ZABALA

**Bixente Pagoaga arrasatearra baserritarra da, eta baserriko kontuetan aditua. Abenduaren 20an, hitzaldia egingo du Kulturateko Areto Nagusian.**

Mundu guztiak gauza bategatik edo besteagatik ezagutzen zaitu betidanik, baina beti baserri munduan. Baserriko bizimodu zuk baino hobeto ezagutzen duen gutxi egongo da, ezta?

Gero eta gutxiago gara, baina oraindik ere, baserrria bizimodu duen asko dago Arrasate inguruan.

Ni Arrasateko Aranguren baserrian jaio nintzen, eta orain 16 urte, Urkuluko Arientza auzoan, Mitrarte-Garai nekazal turismoa zabaldu genuen emazteak eta biok.

Baserriko bizimodu asko jaitsi da. Baserri mundua lan gogorra da, oso jarraipen handikoa da, izan ere, ez dago jaiegunik, eta konpentsazioa ere txikia da. Modu honetan, normala da gazteak mundu honetan ez sartzea.

Oraingo gazteek modu errazagoan ikusten dute bizimodu. Gu baserritar bizimodura ohitu ginen, eta honean jarraitzen dugu.

Nekazal turismoa ez ezik, animaliak ere baditzue oraindik ezta?

Bai, halaxe da. Hala eta guztiz ere, pasa den urtean, artalde handi bat ken-

du behar izan genuen, gai-xo egon nintzelako, baina oraindik, ardiren batzuk eta behorren batzuk badauzkagu. Eta hau da niretzat nekazal turismoa egitea, animaliekin bizi iza-tea, alegia, eta ez nekazal turismo konsideratuta animaliarik ez edukitza. Nik asko baloratzen dut hau.

Etxean oraindik ere animaliak izanda, Santamasetan jaitsiko duzu animaliarik feriara?

Ez dut animaliarik eramango. Lehen, asko joandakoak gara, batez ere, barazkiekin, ogiekin... eta beste azoka mordotara joaten ginen, baita Eibarrera eta Zumarragara ere. Baina orain, senar-emazteak biok gaude, eta ama ere nahiko nagusia da, eta ezin dugu joan.

**Santamasetan asko ibilitakoa zara. Azken urte hauetan, nabaritu duzu zuk aldaketarik giro aldetik?**

**"Oraingo gazteek modu errazagoan ikusten dute bizimodu"**

**"Azken 30 urteetan, 50-60 baserri desagertu dira Arrasaten"**

Aldatu ez da egin. Gehiago potentziatu da. Arrasaten egon dira gorabehera batzuk antolaketa aldetik, eta jendeak modu onean onartzen ditu. Ni gogoratzan naiz kooperatibetan 62-63. urtean lana egin behar izan genuela Santamas egunean, eta ez zitzai-gun batere ondo iruditu, guretzat oso jai handiak dira eta.

Zure baserri bizitza kontatto ondoren, eta datorren hilaren 20an egingo duzun hitzaldiari helduz, baserriak izan duen bilakaera nolakoa izan da Arrasaten azken urte hauetan?

Niri pena handia eman dit egoera honek. Ni lantegian lan egindakoa naiz 10 urtetan zehar, eta hau dueña 30 urte gertatu zen. Arrasaten egin zen lehen kooperatiba baserritarren diruarekin egin zen. Honen ostean, baserriarenagatik oso gutxi egin dute, industria sartu den bezain pronto, baserri eta baserritaren egoeraz ahaztu egin dira, eta pena handia eman dit hain denbora gutxian hainbeste baserri galtzea: azken 30 urteetan, 50-60 baserri inguru desagertu dira Arrasaten.

Baserriko jarduerak eta egin beharreko ahalleginak gehiegiz dira gaur egungo gazteenetan?

Etorkizuna errazagoa da orain, eta baserriko bizimodu ez dutenez bizi izan, ez dute baloratzen.

**Zure hitzaldiaren izenburua Arrasateko baserria: jarduera, bizimodu eta ohiturak da.**



Abenduaren 20an egingo du hitzaldia Bixente Pagoagak Kulturaren.

GOIENKARIA

## HITZALDIAK

### ABENDUAK 18, EGUAZTENA

19:00: Kulturateko Areto Nagusian, "Baserri gazteak nekazaritzari begira". Hizlaria: Akuilo nekazari gazteen elkarteko kide bat.

### ABENDUAK 19, EGUAZTENA

19:00: Kulturateko Areto Nagusian, "Nekazaritzeta eta globalizazioa". Hizlaria: Paul Nicholson EHNE sindikatuko kidea.

### ABENDUAK 20, EGUNEA

19:00: Kulturateko Areto Nagusian, "Arrasateko baseria: jarduera, bizimodu eta ohiturak". Hizlaria: Bixente Pagoaga.

behar da, gauza asko alde batera utzi, baserriak asko lotzen duelako, eta hau, gaur egun, jende gutxik nahi du.

**Amaitzeko, eta eguraldiaz ere ulertzet duzun neurrian, Santamasetan zein da egingo duen eguraldia?**

Aldez aurretik, ezin daiteke gauza handirik esan, baina eguraldi ona espero dut. Hego haizea dabilenean, oso zaila iza-tent da jakitea. Beraz, Santamasetan jendeak utz dezala aterkia etxearen eta goza dezala egunaz, horixe gomendatzen diot nik.

**Ondo pasatu Santamasak!**

**INBERTSIOAK ETA ZERBITZUAK, S.A.**

**AHOLKULARI INMOBILIARIOAK**

Iturriotz 11 ARRASATE


Tel.: 943 77 14 11 / 943 77 08 82

[www.inmoarrasate.com](http://www.inmoarrasate.com)



**ONDO PASAU GABONAK!**

Otalora lizenziaduna 20, beheARRASATE  
Tel.: 943 71 25 89



**ANBOTO**

The advertisement features a large graphic of a stylized eye with a blue heart in the iris on a yellow background. Below it is a woman wearing purple-rimmed glasses. To the right is a photograph of the exterior of a shop named "arrasate optika" with a green sign, and a close-up of a person wearing white sunglasses.

**arrasate optika**

Kontzeziño kalea 6 ARRASATE  
Tel.: 943 79 25 98

The advertisement shows several photographs of the establishment: an exterior view of a white building with a tree in front; a restaurant interior with tables and chairs under a wooden pergola; a room with two beds; and a dining room with long tables and chairs. The text is in Basque.

*Paraje eder baten kokatua*

*Atsedenerako behar den guztiarekin*

*Dasta ezazu gure menurik goxoenak*

*Enpresa bilerak egiteko leku egokia*

**Arteaga**  
Landetxea

*Arteaga baseria,  
Garagartza auzoa, 37 zenbakia  
20500 Arrasate • Gipuzkoa  
Tel. 943 71 18 81  
Faxa: 943 71 18 82*

Z  
o  
r  
i  
o  
n  
a  
k  
e  
t  
a  
u  
r  
t  
e  
b  
e  
r  
r  
i  
o  
n

## PILOTA

# Olaizola I.a eta Bengoetxea VI.a, pilotazaleen erakargarri

Santamas bezperako jaialdia gaueko bederatzietan hasiko dute, eta 10 euro kostatzen da sarrera

XABIER URTZELAI

Abenduaren 21ean, Asegarceko pilotariak izango dira Santamasetako jaialdian aurrez aurre. Oraingoan, gainera, jaialdiak babesle berezia izan du: 50. urteurreneko ospakizunetan dabilen Fagor Arrasate, hain zuzen ere.

**U**rtero moduan, Santamasek pilotajaialdia izango dute, bezperan. Hilaren 21ean, zortzi pilotari izango dira Uarkapen ikusgai. Lehenengo partiduan, BBK Gabonetako Sariko bigarren finalerdia jokatuko dute.

Zeingehiagok horretan, Agirrek (Bilbo, 1974) eta Raik (Burgos, 1975) Diaz (Iruñea, 1983) eta Mendizabal (Zaldibia, 1983) izango dituzte aurrean. Beteranoak gazteen kontra. Lehenek oraindik metxa luzea daukatela erakutsi gura dute, eta gazteenek, berriz, enpresan aurrerapauso bat emateko gertu daudela erautsi. Zaleen artean giroa berotzen joateko partidua izango da hori; kantxan egongo direnek, baina, jai-girorik ez dute izango, txapelketan aurrera egin ala ez izango dute-eta jokoan.

#### ESTELARREAN, LAU NAFAR

Partidu horren ondoren jokatuko dute estelarra, eskuz binakakoa baita ere. Gainera, partidu horrek babeslea izango du, Udalak Fagor Arrasateren laguntza izan du-eta partidu hori antolatzeko. Bigarren nor-



Oinatz Bengoetxeak Uarkapen jokatuko du egubakoitz gauean. Aurreko koadroetan, Asier Olaizolaren aurka ariko da.

GOIENKARIA

gehiagoka horretan, Olaizola I.ak (Goizueta, 1975) eta Otxandorenak (Mugairi, 1975) Bengoetxea VI.aren (Leitza, 1984) eta Beginoren (Auza, 1980) kontra jokatuko dute. Nafarrak izango dira protagonista, eta lau pilotarien artean, ikusi behar aurrean ze biziitasun ematen dioten partiduari Olaizolak eta Bengoetxeak.

Azken hilabeteotan, kirol lorpenengatik baino gehiago, arrazoi pertsonalengatik izan da albiste

Olaizolatarren nagusiena. Ezkondu egin behar zela-eta, enpresak ez zuen Goizuetako pilotaria Lau T'erdi Txapelketan sartu, eta, horrekin batera, Aimar Olaizolak partidua izan zuen anaia ezkontzen zen egunean. Orduan, Olaizolatarra haserretu egin ziren enpresarekin.

**OINATZ ONDO IBILI DA UDAN**  
Jaialdian izango diren gai-nontzeko pilotariekin alde-ratuta, Oinatz Bengoetxe-

#### Estelarreko lau pilotarien artean, Oinatz Bengoetxeak jantzi du azkenekoz txapela, udan, eta birritan

ak jantzi du txapela azkenekoz. Aurtengo udan izan da, eta birritan, gainera.

Kasu bietan, Barriolarekin osatu du bikotea, eta Leitzakoek ez dute kontrariorik izan. Hasteke, Donostia Torneo fina-lean, Titin III.a eta Eulate hartu zituzten mendean (22-11). Geroago etorri zen, baina, udako lorpen handia: Leitzako bikoteak jantzi zuen San Mateoko txapela, Adarragan jokatutako finalean Aimar

Olaizolari eta Oskar Lasari 22-11 emaitzarekin irabazita.

Lau t'erdiko txapelketan, Bengoetxeak ezin izan du aurrean ibili, eta ikusi egin beharko da orain, Gabonetan, udako txinpartari eusten dion. Beginok atzean laguntzen badio, lanak izango dituzte, behintzat, Olaizolak eta Otxandorenak irabazteko; pena da, zaleentzat, aurrean Asier ez dela horren ikusgarria.

**ION**  
leihoak

- LEIHOAK • HORMA ARMAIRUA
- ATEAK • ZOLUAK

PVC, ALUMINIOA  
ETA POLIURETANOA



20500 ARRASATE **Eraukostoki eta lantoki berria**  
Debagoiena industrialdea. Telleria kalea 4, 11.atea. P.K.172  
Tel.: 943 79 11 35 Faxa: 943 77 31 20

01003 GASTEIZ  
Olaguibel 51  
Tel./Faxa: 945 26 71 73

Posta elektronikoa: ion.a@euskalnet.net • www.ventaion.com



HERRI KIROLAK

# Inaxio Perurena: "Neguan egoten naiz indartsu"

Zaldibarren emanaldia egingo dute Perurena aita-semeek

XABIER URTZELAI

**Santamas egunean,  
herri kirolak egongo  
dira Zaldibarren,  
aizkolariek eta harri-  
jasotzaileak. Perure-  
na aita-semeek ez  
dute urteroko hitzor-  
duan kale egingo**

**G**azte-gaztetatik hasi nintzen aitarekin batera Santamas egunean Arrasatera joaten, eta azken urteotan ez dut uste kale egin dugunik", esan digu Inaxio Perurenak: "Gustuko dut Arrasaten jardutea, izan ere, ondo ezagutzen dudan lekua da hura".

Gehiago ere esan digu: "Gabonetan, 290 kiloko harria jasota, nire errekorra ondu gura nuen, eta Arrasatetik deitu zigute-nean erakustaldia egiteko, errekorra ontzeko ahalegina han egitea erabaki nuen, izan ere, orain dela urte batzuk, Arrasaten gainditu nuen lehenagotik nuen errekorra; 205 kiloko harria jaso nuen esku baka-rarekin".

**EZ DA LEKU APROPOSENA**

Horrelako saiakera bat egi-teko, baina, Zaldibar ez da leku aproposena, estalita ez dagoenez, euria egiten badu, arriskutsua izan dait-keelako: "Aitak esan zidan ez dela komenigarrria, eta arrazoia du. Horrelako saiakera batean, azkeneko detaileak ere eragin handia izan dezake, milaka buelta ematen dizkiogu

buruari, eta, azkenean, Asteasun egingo dut aha-legin hori, hilaren 31n". Hala ere, erakustaldi polita egingo dute Arrasaten: "Guztira, sei harri eraman-go ditugu. Aitak, 120 kiloko zilindroarekin, zortzi jasoaldi egingo ditu; 180 kiloko angeluzuzenarekin, hiru jasoaldi; eta aita-semeak 111 kiloko harri borobilarekin ibiliko gara. Nik, berriz, 195 eta 220 kiloko harriak erabiliko ditut berotzeko, eta 260 kiloko harria ere altzatuko dut".

**ALDAKETA GUTXIKI**

Perurena gaztearen esane-tan, kirol hori ez da larre-gi aldatu: "Beste kirol batzueta, aldaketa handiak izan dira, baina hemen, ez horrenbeste. Lehen, aita gerriko minarekin-eta ibiltzen zen, eta orain, berriz, masajeak hartuta, ez dugu inolako arazorik izaten. Orain, gehiago lantzen ditugu luzapenak, eta hobeto egi-ten ditugu entrenamen-duak. Hori bai, janari dago-kionean ere, lehen baino hobeto egiten ditugu gau-zak. Orduan, harriak jaso baino ordubete lehenago, txuleta galantak jaten zitzuten, eta gaur egun, ordea, badakigu hori asta-keria dela".

Osasunaren gainean ere galdezu diogu: "Bulego-an lan egiten duten asko baino hobeto ikusten dut aita; masajeak hartzen hasi zenetik, ez du gerrian minik izan. Hori bai, hau-tsita ditu bi meniskoak".

**AIZKOLARIK ERE BAI**

Harri-jasotzaileekin bate-ra, aizkolariek ere lana izango dute Zaldibarren. Eurek hasiko dute ikuski-zuna, 12:30ean. Nazabal, Mugertza eta Senosia in anaiaik ibiliko dira egurraak mozten, eta 13:00etan har-tuko dute harri-jasotzailek errelebua.

**"Oso gazte  
gutxi gabiltza  
harriak  
jasotzen, hori  
da egia"**

**Aizkolariek  
12:30ean  
jardungo dute;  
13:00etan, harri-  
jasotzaileek**




Perurena aita-semeak azken urteotan ez dute Santamasetako hitzorduan kale egin.

GOIENKARIA



Lau aizkolariren esku egongo da herri kirolen ikuskizuna hastea.

GOIENKARIA



**Sikol**  
Lentzeria  
OPARIRIK ONENA

Olarte 31 ARRASATE Tel.: 943 79 89 32



## UMEEN TXOKOA



Hainbat euskal jolas tradizionalarekin gozatzeko aukera izango dute umeek. Laubideko jarduera 6 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoei zuzenduta dago bereziki.

ARTXIBOA

# Jolas tradizionalak erakutsiko dizkie Txatxilipurdik gaztetxoei

**Aisialdiaren esparruan, askotariko zerbitzuak eta ekintzak gauzatzen ditu Txatxilipurdik duela 20 bat urtetik**

**EDU MENDIBIL**

**Txatxilipurdi elkartea-ren eskutik, gaztetxoek euskal jolas tradizionalekin gozatzeko aukera izango dute Santamas egunean, Laubide plazan.**

**G**oizeko hamaiketan hasita izango dira Txatxilipurdiko lagunak Laubide plazan. Esan bezala, hainbat euskal jolas tradizionalen ikastaro moduko bat

eskainiko die gaztetxoei. Bereziki, 6 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoei zuzendutako jarduera izango da. Pare bat orduz, arto bilketarekin, sokatirarekin edo *jauskailuarekin* (jolas ezberdinak egiteko aukera ematen duen oihal moduko bat) primeran pasatzeko aukera izango dute gaztetxoek.

Txatxilipurdiko lau bat begirale arituko dira gaztetxoei jolas bakoitzaren nondik norakoak azaltzen. Aspertzeko astirik ez da izango zapatuan.

**ELKARTE BETERANOA**

Txatxilipurdi Elkartearen helburu nagusia Arrasateko haur eta gaztetxoen artean euskararen erabilera sustatzea da. Horretarako, aisialdiaren esparruan zerbitzu eta ekintza asko gauzatzen ditu: herriko

ludoteka eta gazte txokoentzako kudeaketa, udalekuantza, antolaketa, Gabonetako parkea, San Juan Eguneko Eguzkilari haurren eguna, ikastetxeentzako programa bereziak, urtebetetze festak, auzoetako jaien dinamizazioa...

Txatxilipurdi aitzindaria izan da Euskal Herri osoan, aisialdia lan tresna gisa landuz, haur eta gaztetxoen euskararen erabileraren areagotzeko lanean. Bere sorrera AEDren baitan kokatu behar da duela 20 urte inguru, eta 1994tik

elkartea autonomo gisara jarraitu du. Une honetan ere, esparru honetan, izen eta izan handia daukan elkartea da. Arduradunen arabera, "proiektuak, gainera, babes sozial handia dauka herrian, 900 bazkidek osatzen dute egun

elkartea, eta ikastetxe, administrazio, enpresa pribatu eta gainerako elkarteen koordinazio eta elkarlanean garatzen dugu gure jarduna egunez egun".

Gaur egun, Santa Mariako, Okendoko eta Usaetxeko ludotekak zabalik ditu Txatxilipurdik Arrasaten. Azkena zabaltzen Usaetxekoa izan zen, joan den irailaren 28an. 3 eta 12 urte bitarteko umei zuendutako lokalak dira. Haurren sailean hamar bat begirale ari dira, jolas eta hezkuntza uztartuz.

**Pare bat orduz, arto bilketarekin, sokatirarekin edo *jauskailuarekin* primeran pasatzeko aukera izango dute gaztetxoek**

**gazte/gizon  
moda**



**Ondo pasa jaietan!**  
**Markiegi**

**A R R A S A T E**

<http://www.goiena.net/blogak/markiegi>

**Olarte, 2 – Arrasate. Tel. 943 79 15 32**

SEBASTOPOLEKO TITIRITEROAK

# Kaleko jendea dantzan jarriko dute Sebastopoleko Titiriteroek

USOA AGIRRE

Musikaz, akrobaziaz eta magiaz beteko dituzte Arrasateko kaleak Sebastopoleko Titiriteroek. Hila-ren 21ean, egubakotza, egingo dute zirkо kalejira, Seber Altubetik hasita. Ordu bete inguru irauten duen ikuski-zunean, jendea dantzan jarriko dute.

**S**ebastopoleko Titiriteroek urte asko daramatzat ete antzerki eta kale animazioaren munduan jo eta ke lanean. Titiritero hauen lanaren oinarrian, antzerki tradizionala eta zirkoa daude. Hala, bi ezau-garri horiek lotuta, Pailazo-en Kalejira izeneko ikuskizuna ekarriko dute Arrasatera.

Pailazo-en Kalejiran, hainbat pertsonaiak parte hartzen dute. Elefante erraldoia da protagonista-tako bat; auto txiki baten gainean eramatzen dute, pailazo batek gidatuta. Eta elefanteari lagunduz, beste pailazo erraldoi batzuek parte hartzen dute kalejiran, magia, malabar, akrobazia eta zirkо eszenak tartekatuz. Titiriteroen nahia da arrasatear guztiak dantzaz jartzea, eta, horretarako, musika dantzagarriaren laguntzaz egingo dute kalejira.

Pailazo-en kalejira Seber Altube plazan hasiko da 17:30ean, eta Herriko plazan bukatuko da. Kalez kale ibiliko dira ordu erdiz eta, kalejira amaitutakoan, ikuskizuna egingo dute Herriko plazan –euria eginez gero, Biteri plazan egingo da ikuskizuna.



Pailazo erraldoiek lagunduta eramango dute kalez kale elefantea.

SEBASTOPOLEKO TITIRITEROAK

**Kalejira Seber Altube plazan hasiko da 17:30ean eta herriko plazan bukatu. Euria eginez gero, Biteri plazan egingo da**

**1981ETIK KALEAK GIROTZEN**  
Duela 26 urte sortu zuten Sebastopoleko Titiriteroak taldea, Zorroagako Filosofia eta Heziketa fakultatean. Lagun talde bat bildu eta bidaia bat egin zuten

bizikletaz. Bidaian zehar, dirua ateratzeko, malabarrak eta antzerako kale ikuskizunak egin zituzten jende aurrean. Bidaiatik bueltan sortu zitzainen taldea osatzeko ideia. Harrez-

**1981ean sortu zuten taldea, lagun talde batek bizikletaz egindako bidaiaren ondoren. Harrezkero ez dira gelditu**

kerro, makina bat ekintza egin, ekitaldi sortu eta hainbatetan parte hartu dute. 23 ikuskizun inguru sortu dituzte urte hauetan guztiak, eta festa askotako ekintza ludikoak anto- latu dituzte: bost urtez jar-dun dute Bilboko Aste Nagusiko kale animazioa antolatzen; hiru urtez, Egunkaria-ren jaia antolatu zuten eta, iaz, Berrirena; eta, zortzi urtez anto-


latu zuten Egin egunkariaren aldeko jaialdiko animazioa.

Kaleko ikuskizun batekin datoz Arrasatera, baina beste ikuskizun mota batzuk ere egiten dituzte: antzezlanak, irratiko saioak, ipuin kontaketa... Duela lau bat urte, gainera, zinemarako jauzia eman zuten. Besteak beste, Dor-doka Uharrea film laburrean parte hartu dute. Telesitarako zenbait lan ere egin dituzte; Carta a mi madre dokumentala, bestekako beste.

SEBASTOPOLEKO ESKOLA

Sebastopoleko Titiriteroak alde batera eta bestera ibiltzen dira askotan, hainbat herriko kaleak animatzen edo bestelako ikuskizunak eskaintzen. Baino, geldi ez egon arren, leku batean egoten ere badakite. Titiriteroak Altzoko kultur etxeen biltzen dira beste inora joan beharrik ez dutenean, eta han eskaintzen dituzte zenbait ikastaro ere: ipuin kontaketa ikastaroak, sabel dantza, zingaro dantza, zirkо ikastaroak, zinema, euskal antzerki herrikoia –pastorala, maskarada...–, gorputz adierazpena... Ikastaro trinkoak edo iraunkorrak dituzte, bakoitzaren beharretara egokitzeko. Guztira, talde pedagogikoan 15 urte baino gehiago-ko esperientzia duten pedago-go lizenziadunak eta Antzerti eskolako titulu-dunak dituzte.

Altzon dute Titiriteroek egoitza, baina ikastaroak edozein txokotan eskaintzeko gertu izaten dira beti. Titiriteroak doazen edozein lekutan egongo da, ikuskizunaz gozatzeaz gain, ikasteko aukera. Baita Arrasaten ere.



## Izozkitegia

Gozategia  
Italiar izozkitegia  
Kafetegia

Santamas jai zoriontsuak!

Iturriotz 7 • Tel.: 943 79 81 68 • ARRASATE



**Hilarion**  
**jatetxea-taberna**

Plater konbinatuak  
Ogitartekoak  
Sandwichak

Talde gazteendako prezio bereziak

Larrea Plaza 5 behe - ARRASATE Tel.: 943 77 01 69

**TXORONPIO ETA TXORONPIA**

# Txoronpiok eta Txoronpiak umeen eskutitzak jasoko dituzte

**Olentzeroren laguntzaileek, auzoz auzo ibilita, herriko umeen gutun guztiak jasoko dituzte abenduaren 24an**

MAIDER ARREGI

**Txoronpio eta Txoroniak, Olentzeroren postariak, Gabon egunean auzoz auzo ibiliko dira herriko umeek Olentzerori idatzitako eskutitzak batzen. Eguerdian, Seber Altube plazan izango dira.**

**A**benduaren 24a egun handia da etxeko gaztetxoendako. Goizean barrena, Olentzeroren laguntzaileak, Txoronpio eta Txoroniak, menditik jaitsiko dira, eta herriko ume guztien eskutitzak jasoko dituzte ondoren, Olentzerori berriro mendira eramateko.

Hala, 12:00etan, Arrasateko auzoetan barrena Olentzerorendako umeek idatzi dituzten gutunak jasotzen ibiliko dira Txoronpio eta Txoroniak. Besteak beste, ibilbidea Munar auzoan hasiko dute. Ondoren, Uribe, San Andres, Zigarrola eta Santa Teresa auzoetan ibiliko dira Txoronpio eta Txoroniak. Giro ezin hobea izango da, gainera. Izan ere, ibilbidea gaitariekin, txistulariek eta trikitilariek alaituko dute. 13:30ean, Seber Altube plazan amaituko dute ibilbidea, eta bertan ere, Olentzerori idatzitako gutunak jasoko dituzte Txoronpiok eta Txoroniak.

**OLENTZERO IRITSIKO DA**  
Arrasateko gaztetxo eta umeak irrikan dauden unea iritsiko da abenduaren 24ko arratsaldean. Olentzero menditik Arrasatera etorriko da. Txoron-

pio eta Txoronpiak batu dituzten gutunak Olentzerorrik dauzka, eta Olentzero umeen ilusioak betetzea etorriko da. Baino Olentzeroren zain gauden bitartean, 17:00ak aldera, gaztainak erreko dituzte danbolinarekin, eta Herriko plazara gerturatzan diren guztiak gaztaina erreak dastatzeko aukera izango dute Gabon egunean.

Hala, 18:00ak aldera iritsiko da Olentzero herrira, menditik jaitsi berri, eta Arrasateko kaleetan barrena egingo duen ibilbidea hasiko du. Zaldibartik abiatuko da eta Portaloiria joango da; ondoren, Zarugalde, Udal plaza, San Andres, Garibai, Portaloria eta Herriko plazara joango da, ume eta gaztetxo guztiekin bat eginda, giroa alaituz.

Olentzerok, gainera, urteroko bisita egingo die Garibaiko erretiratuei. Ilusio eta pozaz gain, gozokiak ere banatuko ditu erretiratuen artean.

**OLENTZEROREN AGURRA**

Olentzeroren agurra 19:30ean Herriko plazan izango da. Arrasateko gaztetxo guztiei bisita egin ostean, berriro igoko da mendira opari guztien bila. Izan ere, lan handia izango du Olentzerok gau osoan barrena herrian, etxez etxe opariak banatzen.

Olentzero Herriko plazan dagoela, Mutil Dantza eta Herri Dantza tradizionala egingo da. Gainera, bertaratzan den edonork izango du parte hartzeko aukera. Suaren bueltan nahi dutenek egin dezakete dantza, giroa alaitu eta Olentzero agurtzeko.



Txoronpio eta Txoroniak, auzoz auzo, umeen eskutitzak batzen.

GOIENKARIA

**ILUSIOA PIZTEN 20 URTE**

Hogeitzean baino gehiago daramatzate Txoronpio eta Txoroniak elkarrekin Olentzeroren laguntzaile lanetan. Zehazki, 1982an, Txoronpiok lehen aldiz lagundu zion Olentzerori postari lanak egiten. Izan ere, Olentzerok lan handia dauka Gabon egunean, umetxo guztien gutunak jasotzen, eta Txoronpio hasi zen laguntzai-le gisa.

Bost edo sei urte geroago, ordea, Txoronpioren emaztea, Txoroniak, ere postari lanetan hasi zen. Izan ere, Txoronioren bakarrak lan handia zen ume

guztien eskutitzak batzea. Hala, tradizio handiko lana egiten dute Olentzeroren laguntzaile eta postarieki. Haurrei ilusioa eta alaitasuna ekartzen dizkie.

**Txoronpiok eta Txoroniak Munar auzoan hasiko dute ibilbidea. Eta herria zeharkatu eta gero, Seberon bukatuko dute ibilaldia**

**GUTUNAK, ESKOLA GUZTIETAN**  
Olentzero Komisiuak ikastetxe guztieta banatu ditu Olentzerori idatzeko gutunak eta egitaraua. Ibilbidea Munar auzoan hasiko dute. Ondoren, Uribe, San Andres, Zigarrola eta Santa Teresia ibiliko dira, Seber Altubera iritsi arte. Giroa musikak eta gaitariekin alaituko dute. Olentzero Komisiuak herriko ume guztiei egin die joateko eta parte hartzeko deia.

Arrasate Bidaiaik  
CIE 2214  
BIDAIA - AGENTZIA ELKARTUA



## Santamas jai zoriontsuak!

Kontzeziño kalea 12 - ARRASATE  
Tel.: 943 71 25 30 Faxa: 943 79 74 45  
E-posta: d4051@marsans.es

## Jose Ramon Otamendi

# harategia

Olarte 13 - Tel.: 943 79 62 28

**TXORONPIO ETA TXORONPIA**

# Txoronpiok eta Txoronpiak umeen eskutitzak jasoko dituzte

**Olentzeroen laguntzaileek, auzoz auzo ibilita, herriko umeen gutun guztiak jasoko dituzte abenduaren 24an**

MAIDER ARREGI

**Txoronpio eta Txoroniak, Olentzeroen postariak, Gabon egunean auzoz auzo ibiliko dira herriko umeek Olentzerori idatzitako eskutitzak batzen. Eguerdian, Seber Altube plazan izango dira.**

**A**benduaren 24a egun handia da etxeko gaztetxoendako. Goizean barrena, Olentzeroen laguntzaileak, Txoronpio eta Txoroniak, menditik jaitsiko dira, eta herriko ume guztien eskutitzak jasoko dituzte ondoren, Olentzerori berriro mendira eramateko.

Hala, 12:00etan, Arrasateko auzoetan barrena Olentzerorendako umeek idatzi dituzten gutunak jasotzen ibiliko dira Txoronpio eta Txoroniak. Besteak beste, ibilbidea Munar auzoan hasiko dute. Ondoren, Uribe, San Andres, Zigarrola eta Santa Teresa auzoetan ibiliko dira Txoronpio eta Txoroniak. Giro ezin hobea izango da, gainera. Izan ere, ibilbidea gaitariekin, txistulariek eta trikitilariek alaituko dute. 13:30ean, Seber Altube plazan amaituko dute ibilbidea, eta bertan ere, Olentzerori idatzitako gutunak jasoko dituzte Txoronpiok eta Txoroniak.

**OLENTZERO IRITSIKO DA**  
Arrasateko gaztetxo eta umeak irrikan dauden unea iritsiko da abenduaren 24ko arratsaldean. Olentzero menditik Arrasatera etorriko da. Txoron-

pio eta Txoronpiak batu dituzten gutunak Olentzerorrik dauzka, eta Olentzero umeen ilusioak betetzea etorriko da. Baino Olentzeroen zain gauden bitartean, 17:00ak aldera, gaztainak erreko dituzte danbolinarekin, eta Herriko plazara gerturatzan diren guztiak gaztaina erreak dastatzeko aukera izango dute Gabon egunean.

Hala, 18:00ak aldera iritsiko da Olentzero herrira, menditik jaitsi berri, eta Arrasateko kaleetan barrena egingo duen ibilbidea hasiko du. Zaldibartik abiatuko da eta Portaloiria joango da; ondoren, Zarugalde, Udal plaza, San Andres, Garibai, Portaloria eta Herriko plazara joango da, ume eta gaztetxo guztiekin bat eginda, giroa alaituz.

Olentzerok, gainera, urteroko bisita egingo die Garibaiko erretiratuei. Ilusio eta pozaz gain, gozokiak ere banatuko ditu erretiratuen artean.

**OLENTZEROEN AGURRA**  
Olentzeroen agurra 19:30ean Herriko plazan izango da. Arrasateko gaztetxo guztiei bisita egin ostean, berriro igoko da mendira opari guztien bila. Izan ere, lan handia izango du Olentzerok gau osoan barrena herrian, etxez etxe opariak banatzen.

Olentzero Herriko plazan dagoela, Mutil Dantza eta Herri Dantza tradizionala egingo da. Gainera, bertaratzan den edonork izango du parte hartzeko aukera. Suaren bueltan nahi dutenek egin dezakete dantza, giroa alaitu eta Olentzero agurtzeko.



Txoronpio eta Txoroniak, auzoz auzo, umeen eskutitzak batzen.

GOIENKARIA

**ILUSIOA PIZTEN 20 URTE**

Hogeitzean baino gehiago daramatzate Txoronpio eta Txoroniak elkarrekin Olentzeroen laguntzaile lanetan. Zehazki, 1982an, Txoronpiok lehen aldiz lagundu zion Olentzerori postari lanak egiten. Izan ere, Olentzerok lan handia dauka Gabon egunean, umetxo guztien gutunak jasotzen, eta Txoronpio hasi zen laguntzai-le gisa.

Bost edo sei urte geroago, ordea, Txoronpioren emaztea, Txoroniak, ere postari lanetan hasi zen. Izan ere, Txoronioren bakarrak lan handia zen ume

guztien eskutitzak batzea. Hala, tradizio handiko lana egiten dute Olentzeroren laguntzaile eta postarieki. Haurrei ilusioa eta alaitasuna ekartzen dizkie.

**Txoronpiok eta Txoroniak Munar auzoan hasiko dute ibilbidea. Eta herria zeharkatu eta gero, Seberon bukatuko dute ibilaldia**

**GUTUNAK, ESKOLA GUZTIETAN**  
Olentzero Komisiuak ikastetxe guztieta banatu ditu Olentzerori idatzeko gutunak eta egitaraua. Ibilbidea Munar auzoan hasiko dute. Ondoren, Uribe, San Andres, Zigarrola eta Santa Teresia ibiliko dira, Seber Altubera iritsi arte. Giroa musikak eta gaitariekin alaituko dute. Olentzero Komisiuak herriko ume guztiei egin die joateko eta parte hartzeko deia.

Arrasate Bidaiaik  
CIE 2214  
BIDAIA - AGENTZIA ELKARTUA



## Santamas jai zoriontsuak!

Kontzeziño kalea 12 - ARRASATE  
Tel.: 943 71 25 30 Faxa: 943 79 74 45  
E-posta: d4051@marsans.es

## Jose Ramon Otamendi

# harategia

Olarte 13 - Tel.: 943 79 62 28

# Gabon zoriontsuak!




## =KANPAZAR


Tailerra: Bizkaia etorbidea, z/g. • Tel.: 943 79 41 98

Erakusketa: Araba etorbidea, 32 • Tel.: 943 79 77 66


ARRASATE



CAD/CAM



Prototipoak



Kontrolerako lanabesak



**EKIDE S.L.**

San Andres auzoa 2. 4A pab.

20500 ARRASATE

Tel.: 943 71 25 43

Faxa: 943 71 21 43

e-mail: ekide@ekide.es

*Santamasetan eta  
Gabonetan ondo  
ibili!*

# Badatoz Santamasak...



*Amets  
Bengoa  
Branka  
Express  
Rumba  
Gure Leku  
Tamai  
Itzala  
Monte  
Plus Ultra  
Ostantz*

## ONDO IBILI JAIELTAN!

BERTSOA JAIALDIA

# Amaia antzokia bertsolari eta zaleen bilgune bihurtuko da

Arrasateko Jokin Labaienek, Andoni Egaña, Aitor Mendiluze, Arkaitz Estiballes eta Amaia Agirrerekin jardungo du



Andoni Egaña  
Zarautz



Aitor Mendiluze  
Andoain



Arkaitz Estiballes  
Santutxu



Jokin Labaien  
Arrasate



Amaia Agirre  
Billabona



Lierni Altuna (gai jartzailea)  
Aramaio

JASONE ZABALA

Abenduaren 22an, zaleek Amaia antzokian dute hitzordua 20:00etan: Andoni Egaña, Aitor Mendiluze, Arkaitz Estiballes, Jokin Labaien eta Amaia Agirre, bertsotan; Lierni Altuna, gai jartzaile lanetan.

**A**urten ere, bertsosaioa egongo da, Santamasetan ohiatura den legez.

Guztira, bost bertsolari arituko dira, eta bat Debagoieneko izango da, Jokin Labaien arrasatearra.

Gai jartzaile lanetan, Lierni Altuna aramaioarra egongo da aurtengoan ere, eta, bere esanetan, "gai normal samarrak izango dira, bakarkakoak, binakaakoak eta gai berezirik ere sartu daiteke".

Antolatzailea AED da, eta bertan prestatuko dituzte gaiak, eta ondoren, Lierni Altunak berak egingo ditu aurkezle lanak. Ohiko saioa izango da, eta entzuak ere, gehienak betikoa izango direla espero dute: "300 lagun izan ziren



AEDko bertsosaiola kideek prestatu dituzte datorren abenduaren 22an egingo den saiorako gaiak.

GOIENKARIA

**Jokin Labaien arrasatearra  
izango da saioa osatuko duen  
Debagoineko bertsolari bakarra**

**"Bertsosai ederra izango dela  
espero dut, guztion  
gozamenerako"**

pasa den urteko saioan, eta aurtengoan ere, beste hainbeste espero dira", azaldu digu Lierni Altunak.

**SAIO EDERRA**

Bertsolarietan, bertsosaiola ezberdinak daude, eta, honegatik, saio polita ate-rako dela espero dute antolatzaileek.

Andoni Egañak bertsolaritzaz munduan ezer gutxi dauka erakusteko honekero, eta saioetara ikusle ugari erakartzen ditu. Aitor Mendiluze eta Amaia Agirrek, berriz, Gipuzkoako Txapelketan parte hartu dute, eta Amaia Agirre hilaren 16an jokatuko den finalerako sailkatu ez den arren, Arrasateko saioan egongo da. Arkaitz Estiballes, berriz, "bizkaitarra izanik, gipuzkoar eta bizkaitarren arteko nahasketeta polit hori sortzeko ekarriko dugu". Jokin Labaien arrasatearra "AEDko bertsosaiola eskolakoa da, eta gazteei aukera bat emateko bide horretan aukeratu dugu Arrasaten izango den saiorako".

Bestalde, AEDko bertsosaiola duela urte batzuk plazaratu zuen koplarixen kalejira berreskuratuko du hilaren 22rako.

**JOSE MARI SALEGI**  
**HARATEGI · URDAITEGIA**

Olarte kalea 20  
ARRASATE


**Ondo pasatu Santamasak  
eta urte berri on!**

**lentzeria**  
**B**  
**Bea**

Iturriotz kalea 4  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 12 05

**Ondo pasatu  
Santamas jaiak!**

SIMONE PÉRÈLE  
LEJABY  
CALVIN KLEIN  
MODIN  
KENZO  
CHANELLE  
PASSIONATA  
ANDRÉS SARDÀ  
BARBARA  
ARTHUR



**TXISTULARI ETA GAITARIAK**

# Lander Lorenzo: "Salda hartuaz berotu behar Santamasetan"

**Zapatuan, 09:30ean hasita, Udalaxpe txistulari taldeak eta Arrasateko gitariekin berotuko dute Santamasetako goiz hotza**

XABIER URTZELAI

**Arrasateko txistulari eta gitariek izango dute Santamas goiza girotzen hasteko ardura; 09:30ean joko dute diana, eta, 11:30ean, kalejira egingo dute.**

Urtero moduan, Santamas egunak langile finak izango ditu, gainontzeko herritarrak jai giroan murgil daitezten lan egingo dutenak. Gustuz egiten duten lana da, eta eurek ere ederto pasatzen dutela onartu dio GOIENKARIAri gitarien artean gazteenak, Lander Lorenzok: "Azken batean, gustatzen zaiguna egiten dugu, eta lan hori gure jai bilakatzen dugu. Gainera, guk ere jaietkin gozatzeko aukera izaten dugu, ondo antolatzea da kontua".

**SEI LAGUNEO TALDEA**

Arrasateko Gaitariak taldea sei lagunek osatzen dute egun, eta 28 urteko lana dute atzean –2004an ospatu zuten taldearen 25. urteurrena. Bistan da urte horietan guztietan lagun asko pasa direla taldeik, eta guztiak ere ezagunak dira herrian.

Hala, herriko jaietan kalean gora eta behera ibiltzearekin batera, kanpora ere joaten dira: "Hainbat hitzordutan ez dugu inoiz kale egiten; esaterako, San Ferminetan, Guardian egiten duten gitarien egunean, Gasteizko jaietan... eta, horrekin batera, beste leku batzuetara ere joaten gara.

Adibidez, orain dela hilabete inguru Biarritzen izan ginen jotzen".

**JAI GUSTUKOENAREN GAINLEAN**

Horren gainean ere egin du berba Lorenzok, Arrasateko jai gustukoaren gainean: "Egia esateko, jai bakotzak bere ezaugarriak ditu. Santamasetan egoten den giroa aparta izaten da, baina San Juanek ere momento ederrak izaten dituzte".

Hori bai, abenduaren 22an egingo duen hotzari aurre egitea ez da makala izango: "Nahiko gogorra izaten da, bai, batez ere, hotz handia egiten badu. Atzamarrak gogortuta, sudurra hotz-hotza... Gaita jotzerakoan, igarri egiten da hori, eta, kalera irten aurretik, taldekideak elkartu eta nota batzuk jotzen ditugu, instrumentua eta gorputza berotzeko. Gero, kalean, saldaren batekin edo berotu behar...".

Biharamunaren gainean ere berba egin du gitarri arrasatearrak: "Ez da

**"GOIENKARIA osoa beharko genuke anekdotak kontatzeko"**

**"Batzuetan, irribarre batek adieraz dezake jendea gustura dagoela"**

horrelakorik komeni, buruko mina daukanak, egoten den zaratarekin... Egiten duen hotza baino gogorragoa izaten da hori, hobe biharamun barik".

**GURA BESTE ANEKDOTA**

Lorenzoren esanetan, horrenbeste urtetan GOIENKARIA oso bat betetzeko besteko anekdotak ditu taldeak, "baina horretarako, hobe beteranoekin berba egitea".

Eta, kalean jotzen dabiltzanean, jendea animatzen den ere galdu diogu: "Bai, igarri egiten da. Erraldoien joaten garenean, bistan geratzen da hori, jende asko joaten da-eta erraldoien atzetik. Gauza bera gertatzen da dianatan, edo kale bazter batean pieza batzuk jotzen ditugunean. Jendea berehala animatzen da, eta, ondo jotzen badugu, oraindik-eta azkarra. Gainera, askotan ez ditugu txaloak behar jendea gustura dabilela ikusteko; begirada edo irribarre batek gehiago transmisiitu dezake".

**ALDE ON ETA TXARRAK**

Amaitzeo, euren zaletasunak dituen alde on eta txarren gainean ere egin du berba: "Instrumentu bat jotzeak behar duen dedikazioa da okerrena; ez nuke esango alde txarra denik, baina bai, akauso, gogorrena. Baina, gero, bete egiten zaituen gauza bat da, merezi dueña, eta ez bakarrik musika aldetik. Ondo egindako talde-lana oso polita da, eta han eta hemen egiten ditugun lagunak beti rako izaten dira".



Lander Lorenzo, eskumatik bigarrena, gainontzeko taldekideekin, Jokin Zaitegi plazan.

GOIENKARIA



Txistulari arrasatearrak, Biteri inguruan, kalerako bidean.

GOIENKARIA

**eya**

etxetresna elektrikoak

estilo guztiako lanparak zure esku

Ondo pasatu Santamasak!

Iturriotz 21 Tel.: 943 79 03 84 Faxa: 943 77 20 51  
ARRASATE

**kuxkur**  
OKINDEGIA

OGIA • DELICATESSEN • URDAITEGIA • PASTELAK  
• AURRETIK PRESTATUTAKO JANARIAK•

Lapurdi kalea 7-9 • Tel.: 943 79 69 93  
jaio.a@euskalnet.net



# anpazar obate — harrobiak —

*Ondo pasau Santamas jaixetan*



## **ERAIKUNTZARAKO MOTA GUZTIETAKO HARRIAK ETA HORMIGOIAK**

### **KANPANZAR HARROBIA S.A.**

Meatz-Erreka 21  
ARRASATE 20500  
Tel.: 943 77 10 83  
Faxa: 943 77 00 25

### **KOBATE KAROBIA ETA HARROBIA S.L.**

Garagartza auzoa 52  
ARRASATE 20500  
Tel.: 943 71 24 03  
Faxa: 943 77 02 51



- Estolderien eta putzu septikoen garbitzea
- Fatxaden, pintaden, eta abarren garbitzea
- Kale garbiketa, zabor bilketa, Lorezaintza

**Ondo pasa jaixetan!**

Santalitz 6 behe 2 - BERGARA Tel: 943 76 17 56 - Faxa: 943 76 05 88  
[mondragon\\_cespa@cespa.es](mailto:mondragon_cespa@cespa.es)

**TALOAK**

# Santamasetako izarretako bat bilakatu dira txorizo taloak

Ekin eta Erdu-AEK taldeek postua jarriko dute aurten ere Herriko Plazan, eta 600 bat talo saltzea aurreikusita dute

MIRIAN BITERI

Erdu-AEK eta Ekin Emakumeak taldeetako kideak jo eta su ibiliko dira Herriko plazan txorizo, gazta eta hirugiharreko ehunka talo prestatzen.

Az aurreikusitako produktu guztia nahi baino lehenago agortu zuten Seber Altube ondoan jarritako taloen postuan. Ekimen horrek izandako arrakasta kontuan izanda, oinarrizko osagarri kopurua handitza erabaki dute antolatzaleek, Ekin emakumeen taldeak eta Erdu-AEK euskaltegiak, hain zuzen ere.

Hala, 50 kilotik gora arto-irin izango dute prest. Horrez gain, 45 bat kilo txorizo, 10 bat kilo hirugihar eta hiru gazta erabiliko dituzte antolatzaleek taloak behar bezala betetzeko.

Guztira, goiz osoan zehar, 600 talo inguru salduko direla aurreikusi du Ekin elkarteko kide Maite



Taloen postuak ez du aurten ere huts egingo Santamas egunean.

GOIENKARIA

Uribarrenek. Talo bakoitzalau euroren truke salduko da. "Joan zen urtean prezioa igo genuenez, aurten prezio bera mantenduko dugu. Ez dugu igoko", azaldu du Uribarrenek.

**Herriko plazan egongo den postuan, 10:00ak aldera hasiko dira taloak prestatzen, eta 14:00ak bitartean egongo dira**

Aurreko urteetan bezala, gainera, pintxoak eta ogitarkeko beroak jateko aukera ere izango dute postura hurbiltzen direnek. Eskaintzarik, behintzat, ez da faltako.

Bada, aurten, ez dute edaririk salduko. Orain arte, sagardoa eta ardoa eskaintzen zituzten. Aurten, ordea, sagardo kupela jarriko da Herriko plazan eta, beraz, txosnarik ez jartztea erabaki dute Ekin eta Erdu-AEK-koek.

**10:00ETATIK 14:00ETARA**  
Goiz zabalduko dute antolatzaleek postua. 10:00ak inguruan, dena prest izatea espero dute. Ordu horretarako, taloak saltzen hasteko moduan egotea gura dute. 14:00ak bitartean, zeregin horretan jarraituko dute jo eta su.

Guztira, 20 lagun inguru parte hartuko dute. Urtean zehar, Ekinetako taloak egiteko ikastaroak emanen ditu. Horietako batzuk ikastaro horietan izan direla esan du Uribarrenek.

Santamas egunean lortutako diru kopurua talde bakoitzaren egunero jarduera aurrera emateko era biliko dela ere jakinarazi dute antolatzaleek.

Talo goxoa eta beroa jan gura duenak, beraz, badaki nora joan.



**CANAS -  
ESTEBAN  
ERAIKUNTZAK**

**Santamas jai zoriontsuak  
arrasatear guztioi!**

TXOTX

# Kupela zabalduko dute Herriko plazan

**Komisiñuaren edalontzia erosita, gura beste sagardo edan ahal izango da**

IKER BARANDIARAN

**Azken lau urteotan, ez dute sagardorik zerbitzatu Herriko plazan. Komisiñuaren itzulerarekin, sagardo kupela jarriko dute berriro udaletxeko arkupetan, zapatuan.**

**S**antamas Komisiñue bueltan dago eta, berarekin, orain dela lau urte-rra arteko jaiaren hainbat osagarri itzuliko dira aur-tengo Santamasetan.

Santamasak aspaldiko euskal usadioaren gaineko jaiak dira, eta horietan ezin falta sagardoa eta txotxa,

jakina. Hala jakinarazi digute Santamas Komisiñoko kideek.


## LAU URTE KUPEL BARIK

Hain zuen ere, Santamas Komisiñuek jai hori anto-latu ez duen lau urteetan ez da sagardo kupelik egon Herriko plazan.

Urte askotako ohitura da hori, baina Udalak ez zuen lehentasunen artean aukeratu eta, azken urteotan, ez da txotx egiteko aukerarik izan.

## EDALONTZIA EROSITA

Hala, zapatuan, Santamas egunean, kupel handi bat jarriko dute Herriko plazan 10:30ean. Saizar sagardotegitik ekarriko dute kupe-



Herritarra gustura ibiltzen dira kupelaren inguruan. Argazkian, orain dela bost urteko irudia.

GOIENKARIA

la, eta komisiñokuak ardu-ratuko dira sagardoa zer-bitatzearaz.

Komisiñuaren ohitura-ri jarraituta, sagardoa edateko edalontziak salgai

jarriko dituzte. Edalontzi horiek guztiek Santamas Komisiñoko logotipoa era-mango dute serigrafiatura; eta horiekin, gura adi-na sagardo edan ahal izan-

go da, ezer ordaindu barik. Sagardo kupela bazkal ordura arte egongo da Herriko plazan, udaletxe-ko arkupeetan.

## TALOAK SABELA BETETZEKO


Hala ere, guztia ez da eda-na izango. Hain zuen ere, beste hainbat elementu ere egongo dira Herriko plazan egun horretan, eta horien artean, jatekoak.

Gure usadioei jarraitua, izango da zer jan eta zer edan Herriko plazatik urrundu barik: esaterako,

ez dute kale egingo ohiko talo saltokiek. Aurten, Herriko plazan bertan, bi gunetan egingo dituzte taloak: batetik, Ekin Emakumeen Elkartea eta AEK elkarrekin jarritakoa; eta bestetik, Arrasateko Ezker Abertzaleak ipiniko duena. Gainera, bietan izango da taloak egiten ikusteko aukera. Taloa jateko auke-ra gutxi izaten dira, eta ohikoa da jende ilara han-diak egitea. Hortaz, taloa hartu bitartean, kupelaren inguruan ibiliko dira asko.

**Kupela  
10:30etik  
bazkal ordura  
arte egongo da  
zabalik**

**Edalontzia  
erosiz gero, ez  
da sagardoa  
ordaindu  
behar izango**



**AYLA**

Erdiko kale 42 Arrasate Te.: 943 79 23 04

**ONDO PASAU  
SANTAMASAK!!!**



**BASERRITAR JANZTEKO DEIA**

# Ohiturak berreskuratu guran, dei egin dute baserritar janzteko

Santamas Komisiñuaren esanetan, azken urteotan jaitsi egin da Santamasetan baserritar jantziarekin irteteko ohitura

**UBANE MADERA**

**Baserritar jantzia ohikoa izaten da Santamas jaietan. Baino, azken urteotan, ohitura hori apur bat galdu egin den pertzepzioa dute jaion antolatzaleek, eta ohitura berreskutzeko dei egin dute.**

**B**aserritar jantzia Santamasetako ikurretako bat moduan interpretatu izan dute askok; eta urteetan halaxe izan da. Baino, Santamas jaien antolatzaleen esanetan, hau da, Santamas Komisiñuaren ustez, azken urteotan jaitsi egin da janzkera hori erabiltzeko ohitura. "Galtzen joanda; Udalean egon zen polemikak –Santamas Komisiñuak jaiak antolatu ez izana eta beste–, oro har, jaien beherakada ekarri zuen", adierazi du Santamas Komisiñuek. "Jaitsiera orokorra igarri zen, jaien egitaraua Udalak bakarrik egin zuenez, herriak ez

zituen sentitu propioak balira moduan", gaineratu dute.

Egoera horren adibideak ere ipini ditu Komisiñuek: "Ekintza mordoa ez zituzten egin –Txerri dantza, adibidez– eta dantza taldeek egitarautik kanpo egin zituzten ekitaldiak, Santamas jaiet erabateko boikota ez egitearren".

**KOMISIÑUAREN ABERASTASUNA**  
Hori horrela, besteak beste, Santamas Komisiñuaren baliogarritasuna azpimarratua gura izan dute jaien antolatzaleek: "Komisiñuek badu hori, denon artean antolatzen ditugula jaiak".

**"Udalean egon zen polemikak, oro har, jaien beherakada orokorra ekarri zuen"**



Baserritar jantzia Santamas jaien ikurretako bat bilakatu da urteekin.

XABIER URTZELAI

**BASERRITAR JANTZIAK**

Bestalde, eta jaiak berreskutzeko ahalegin horren barruan, Santamasetan baserritar jantzaren erabilera berreskurtatu eta indartu gura du, bereziki, aurten Santamas Komisiñuek. Hori horrela, deialdi berezia egin diez aurren herrikideei: "Lehen ere eskatzen genien herritarrei baserritar jantziekin ateratzeko kalera Santamas jaietan, baina aurten gogorrago ahaleginduko gara jendea horretara animatzan".

Santamasetako egitarauaren agurrean ere eskaera bera egin dute: "Jaiei kolorie eta umorie emuteko ez dau danok baserritxar jantxitxa egotia morukoik. Animau eta astindu hautsez betetako abarka horreik Santamas egunien".

Eta jakina, eskaera horrez gainera, orokorrean honako mezu hau da helarazi gura duena Santamas Komisiñuek: "Ondo pasatzera eta disfrutatzera atera dadila jendea".

**C-Crosser, Citroen-en 4x4 berria.**

**CITROËN**

"Automobileko leihoa tindatzeko zerbitzu berria aukeran. Zatoz eta informa zaitez!"

Ondo pasa Santamasak!

**TALLERES CHAPIME**  
Debagoinako kontzesionario ofiziala

San Andres auzoa 5  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 45 22

ELKARRIZKETA | ROSARIO ZEZIAGA | CECIAGA DENDAKO UGAZABA

# "Santamas egunean, zerbait berezia egingo dugu, ospatzeko"

MIRARI ALTUBE

Oraintxe jendez gainezka eta oraintxe hutsik dago Ceciaga denda: "Batere ez edo golpez, hala dira dendako kontuak", dio Rosario ugazabak. 100 urte beteko ditu Santamas egunean Ceciagak, eta zerbait berezia eginda ospatu gura dute.

Zuen aitajaunak zergatik zabaldu zuen denda Santamas egunean?

Saltzeko urteko egunik onena zelako. Orain Olentzero egunerako ibiltzen gara erosten, baina sasoi hartan, baserriko emakumeak Santamas egunean etortzen ziren kalera urteko erosketa handienak egiten.

Erosketak oparitzeko ziren?

Ez, etxerako izaten ziren: txapela, kamiseta eta galtzettin berriak... Errege eguna ospatzen geroago hasi ginenean, eta Olentzero, oraindik beranduago.

Beti izan duzue arropa?

Barruko arropak, bai. Denda zabaldu zutenean, askoz gauza gehiago ei zuten: kuku erlojuak, zapatak ume-

endako, gortinak, alfonbrak... Janik ez.

**Baserritar arropak?**

Egindako baserritar arropak orain saltzen ditugu, hamar edo hamabost urtetik hona; lehen jostunek egiten zituzten. Oihalak saltzen genituen, asko saldu ere, eta arropak etxeen egiten zituzten.

Hortaz, lehen ez zegoen baserritar janzteko ohi turarik?

Ohitura bai, baina ez oraingo indarrarekin. Gainera, soineko guztiak antzekoak ziren: motadunak batzuk eta loretxoekin besteak; beltzak eta zuriak, gehienak.

**Eta orain, dotoreagoak gura ditugu...**

Bai, kolore eta modelo asko ditugu. Lehen, baserritarren aste egunetako arropak janzen genituen, eta orain, jaiegunetakoak.

**EHUN URTEKO IBILBIDEAN, MOMENTU GOGORRAK ERE EGONGO ZIREN.**

Bai, entzunda daukat gerra sasoia latza izan zela. Jeneroak saltzeko prezioa jarrita izaten zuen, baina askotan, garestiago erosten zen, estraperloan. Jenerorik ez, dirurik ez, eta jenderik ere ez zegoen. Poliki-poliki gora egin du denak, kontsumoko gizartean bihurtu arte.



Rosario Ceciaga, Santamas egunerako saltzen dabiltzan baserritar arropak erakusten.

MIRARI ALTUBE


**"Lehen, baserritarren aste egunetako arropak janzen genituen, eta orain, jaiegunetakoak gura ditugu"**

**Santamas egunean, ospakizunek egingo duzue?**

Bai, zerbait egingo dugu, baina ezustekoak izango da. Eta guk Errege eguna pasatu arte ez dugu ospatuko.

**Zuk urrezko ezteiak bete dituzu dendaran.**

Bai, erretiroan pentsatzen hasita gaude, baina oso gustuko dut denda eta pena handia hartuko dut ixtean.



## BEREYA elektrizitatea



- ALARMAK. TB. SATELITEAK
- ANTENA KOLEKTIBOAK
- PROIEKTUAK ETA GARAPENAK
- TB ZERBITZU TEKNIKOA
- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
- SOINU INSTALAZIOAK
- KONPONKETAK OROKORREAN
- ATEZAIN AUTOMATIKOAK

Ondo pasau Santamasak!



ELKARRIZKETA IDOIA IBAÑEZ TAPIZGILEA

# "Jendeak aintzat hartzen ditu nire eskulanak"

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Bost urte-edo badira arrasatear honek Santamasetako artisau azokan lehen aldiz parte hartu zuela. Beste hainbat azokatan ere izan da eta, egun, denda du.**

Noiz hasi zinen artisau lanetan?

Institutu garaian, larruzko gauzak egiten hasi nintzen, baina gerora, 22 urterekin, azokaatan nire lanak erakusteari ekin nion. Larrugintzan autodidakta samarra izan naiz, baina gerora, ikastaroak egiten hasi nintzen, ehungailua erabiltzen ikasteko, eta behin teknika ikasitakoan, probak egitea da kontua. Ehoziri-lanekin Lodosan ikasi nuen, eta orain irakatsi ere egiten dut.

**Tapizez gain, beste artisau lan batzuk ere egiten dituzu, ezta?**

Bai, ehungailuarekin tapizak egiten ditut eta, horretaz gain, ehozirilanan, larruzko gauzak, belarritakoak...

**Santamasetako azoka zer moduzkoa da?**

Eguraldi ona eginez gero, nahikoa jende gerturatzan da, eta giro polita egoten da. Hasieran, lanak postuan bertan egiten zitzuten artisauak zuten lehentasuna, baina artisauoi saltzea interesatzen zaigu, batik bat. Jendeak oso ondo hartzen nau azokan, eta nire artisau lana ere aintzat hartzen dute.

**Hori sumatzen da salmentetan?**

Ekonomiaren egoera, oro har, okerrera doala dirudi, eta hori gure salmentetan ere sumatuko dugu. Baina artisau lanak



Idoia Ibañez arrasatearra aurten ere Santamasetako artisau azokan izango da.

GOIENKARIA

**erosten dituen jendeak ez dio diruari hairbeste erreparatzen. Benetan artisau-tzan gastatu nahi duelako eta erosten duen horren balioa aintzat hartzen due-lako erosten du. Gainontzean, artisauok ezingo genuke ohiko merkatuko prezio-ekin lehiatu.**

**Beste azoka batzuetan hartzen duzu parte?**

Bai, askotan. Negu partean, gutxiago, baina gaintzean, maiatzetik Gabonetara bitartean, azokatik azokara ibiltzen naiz.

**Denda ireki duzu; azokak utziko dituzu?**

Denda irailean zabaldu nuen, txipa aldatzeko asmoz. Nekatuta nengo batetik bestera azokatan ibiltzeaz, eta dendak aukera gehiago ematen ditu lanak egoki erakusteko.

**Zer aurki dezakegu zure artisau dendaran?**

Nik egindako lanak, bai larruarekin, bai tapizak, baita ehoziri-lanak ere. Ikastaroak eman nahi ditut, gazteengana gerturatuz. Izan ere, artisautzak jarrai dezan, gazteek ikasi behar dute. Pixkanaka, gazteek interesa azaltzen dute-la dirudi. Bestalde, aurrerantzean, nire artisau lanak ez ezik, beste egile batzuenak ere ipini nahiko nituzke.

**"Erosleek lana baloratzen dute, diruari erreparatu ordez"**

**"Artisautzak jarrai dezan, gazteek ikasi egin behar dute"**



ELKARRIZKETA JONE BERGARETXE BASERRITARRA

# "Konpota prestatzeko, makatza eta sagarra asko erosten dute"

ARANTZAZU EZKIBEL

**Santamas egunekoazoka berezia izaten da Arrasaten, ortutik plazara ekartzen dituzte-eta barazkiak baserritarrek. Jone Bergaretxe Uribarri auzoko Gorostiza baserriko da; urte mordoan egon da plazan, eta aurten ere, han izango da.**

Zenbat urte daramazu Santamasetako azokara etortzen?

Ez dakit, baina urte batzuk bai. Gure ama ere etortzen zen azokara. Arrasateko naizenez, ilusioarekin joaten naiz azokara; niretzat, parte hartzea izaten da garrantzitsuen. Bestalde, ni epaimahaikidea izan naiz azken urteotan; horregatik, azoka baino lehenago egiten diren bileratan ere parte hartzen dut. Esan daiteke, horiaz, barrutik ezagutzen dudala azoka; horregatik, ilusio handiarekin etortzen naiz plazara.

Nolako azoka izaten da Arrasateko?

Denetarik dago; akaso, barazkiak ez dira saltzen

asko Arrasaten. Gehiago saltzen dira ogia, txorixoa, odolkiak... horiek barazkiak baino salmenta handiagoa izaten dute. Barazkiei dagokienez, porruak saltzen dira, baina beste batzuk, ez horrenbeste.

**Nork erosten ditu?**

Etxekoandreak ibiltzen dira, baina baita gizonak ere. Gizonek ogia eta bestelako gauzak gehiago erosten dituzte. Bestalde, fruta ere saltzen da; konpota egiteko, bai sagarra eta bai makatza asko saltzen dira.

**Gabonetako menua prestatzeko, hortaz.**

Bai; lehen, behintzat, baserrieta, olio aza, bakailaoa eta konpota izaaten zen menua, eta badirudi, oraindik ere, konpota egiteko ohitura badagoela etxe batzuetan. Makatza eta sagarra saltzen dira, behintzat, azokan.

**Zeintzuk dira garai-ko produktuak?**

Aza, azalorea, porrua... neguko barazkiak dira. Gurean berriagoak diren beste barazki batzuk ere negukoak dira: brokolia, romanescua, ziazerbak, kardua, txikoria... azkeneko bost edo sei sei urteetan gure ortuetan ditugu.



Jone Bergaretxe.

Prezioei dagokienez, jendeak kexarik izaten du, bada?

Nik uste dut jendea konforme egoten dela jarritako prezioarekin. Izan ere, barazkiak ez dira asko garestitzen: beste egun batzuen antzerako prezioak izaten dituzte. Porruak 2,50 euro balio badu, azoka egunean ere prezioa antzerakoa izaten da. Azak ere 1,20 edo 1,50 inguru izaten ditugu; oso handia baldin bada, 2 eurokoa ere izan daiteke.

**Sariren bat irabazteko esperantzarik baduzu aurten?**

Ez, ez dut uste. Gure amak irabazi izan zuen sariren bat; baina, gure denboran, ni ez naiz inoiz aurkeztu sariren bat irabazteko asmoarekin. Gure nahia parte hartzea izaten da eta, bide batez, baserritarrok egiten dugun lana bultzatzea.

**Baserritar jantzita joango zara azokara?**

Ez, lotsatu egiten naiz. Baina, beste batzuk baserritar jantzita ikustea asko gustatzen zait; ohitura horrek asko janzen du azoka. Nik, berriz, inoiz ez dut soinekoera erosi izan; lotsa ematen dit!

**"Barazkiak baino gehiago saltzen dira ogia, txorizoa eta odolkiak"**

**"Barazkien prezioa ez da asko igotzen; jendea konforme egoten da jarritako prezioarekin"**

**Gabon hauetan oparitu ongizatea eta edertasuna**

**Bonu 1**  
Hidromasajea + lokatzak edo presoterapia + masaje erlaxagarria  
Ordu eta erdi 70 €

**Bonu 2**  
Aurpegiko hidratazioa + gorputzeko masaje erlaxagarria  
Bi ordu 70 €

**Bonu 3**  
Masaje erlaxagarria olio esenzialekin  
Ordu bat 50 €

**Santamas eta Gabon jai zoriontsuak!**

LIRAIN  
ESTETIKA ZENTRUA

Bixente Ferrer, 1

20500 ARRASATE

Tel.: 943 79 52 17

**ELKARRIZKETA EIDER ETA NAHIA HARAKINAK ETA AHIZPAK**

# "Gurasoen ohiturari jarraituz oparitzen diegu txistorra bezeroei"

MAIER URANGA

Eider eta Nahia ahizpek elkarrekin eramatene dute San Andres auzoan dagoen Azpilikueta harategia. Santamas eguneko altxorraren, txistorren, inguruan ibili gara biekin berriketan, izan ere, kilokadak egiten dituzte oparitzeko.

Santamas garaian, sumatzen da txistorra gehiago saltzen denik?

Bai; garai hauetan, jendeak gogotsu hartzen du txistorra. Guk urte guztian egiten dugu, baina, garai hauetan, gehiago saltzen da, eta, saldu baino gehiago, oparitu; guk, behintzat, bai.

Noiz hasten da jendea txistorra erosten?

Hilabete lehenago, Santamas eguna usainduta edo...

Zuek Santamas egunerako zenbat kilo egiten dituzue?

100 kilo inguru egiten ditugula uste dut, Santamas egunerako ekarritakoa. Dena oparitzeko izaten da, bezeroek pozik hartzen dute, eta gu ere, pozik.

Beste harategiek ere oparitzen dute ala zuek bakarrik?

Bai, suposatzen dut baietz, tabernetan ere pintxoak oparitzen duten bezalaxe. Baino guk egin gabe ematen diogu bezeroari, etxearen egin dezan.

Zealde dago txistorra eta txorizoaren artean?

Txorizorako, tripa lodiagoa erabiltzen da, eta txistorrak baino denbora luzeagoa behar du, lehortu eta jateko prest egin dadin. Txistorra, aurreko



Eider eta Nahia, Azpilikueta harategian.

MAIER URANGA

egunean egindakoa, saldu daiteke.

**Txistorra oparitzeko  
ohitura nondik datorki-  
zue?**

Gurasoak ere harakinak ziren, eta haiengandik ikasiko genuen. Bai, gurasoek ere beti oparitu izan diete txistorra bezeroei, aspaldiko usadioa da.

**Harategia zabalik  
izango duzue Santamase-  
tan?**

Bai, egun horretan Arrasaten dendak beti egon dira zabalik. Berez, Santamas jaietan, baserritarak etortzen ziren kalean, eta trukerako aproba-

txatzen zuten egun hori, saldu eta erosko, horregatik egoten dira gaur egun ere dendak zabalik eta azoka kalean. Gaur egun ordea jende gutxi ibiltzen da animaliak erosten, harategira gehienak.

**Zenbat kilo txerri-oke-  
la behar dituzue egun  
horretako 100 kilo txistor**

**egiteko?**

Ez dakigu, baina asko. Guk nahastuta ekartzen dugu, haragi zuria eta *magro* deitzen zaiona eta gero egin.

**Zenbat balio du txis-  
torra kiloak?**

Harategi bakoitzak bere prezioak ditu, baina guk 9,90 euro inguruan dauka-

gu txistorra kiloa.

**Enkargurik egiten  
dizue jendeak?**

Bai; Santamas eguna baino lehenagoko egunean, askok eskatzen digute txistorra gordetzeko, konpromisoren bat daukatela-ko. Fabrikara, jende askok eramatene du, lankideekin jateko edo bazkariren bat

dutelako... Baino Santamas eguna eta gero, ez du inork txistorrarik gura, toperaino egoten gara guztiok. Tabernetara ere, kilo asko saltzen ditugu, izan ere, ohitura da Arrasateko tabernak txistorra pintxoaz beteta egotea, eta egun horretan, goizean goizetik hasita, bezeroari dohainik ematea.

**Zuek ospatuko ditu-  
zue Santamasak?**

Lana egin eta gero, seguru asko, bai, baina aurretik txistorra asko daukagu banatzeko goiz guztian zehar. Gustatuko litzaiguke azoka ikusteko aukera-rik ere izatea!

**"Ehun kilo txistor  
egingo ditugu  
Santamas egunean  
oparitzeko"**

**"Hurrengo egunean,  
inork ez du txistorrarik  
gura izaten; denok  
beteta egoten gara"**

**SARRAILAGINTZA-LANAK,  
24 ORDUZ ZURE ZERBITZURA.  
RAOS OINETAKO KONPONKETAK. Giltzen kopiak egiten ditugu.**



**RAOS**

Tel.: 943 79 74 87 Mugikorra: 687 77 71 57

**erreka**

taberna - jatetxea

Ondo ibili Santamasetan!



Zerrajera 4 beheha 20500 Arrasate  
Tel.: 943 53 32 72  
erreka@erreka.jatetxea.eu

OLENTZERO ETORRI DA  
GAUR HERRI ESKOLARA  
ERREGALOZ BETETA  
GURI BANATZERA  
LAI, LAI, LAI, LAI  
GURI BANATZERA (BIS)


TXAPELA BELTZA ETA  
ABARKAK ERE BAI  
ZUREKIN PASA BEHAR  
DUGU HEMEN ALAI  
LAI, LAI, LAI, LAI  
PASA BEHAR ALAI

GOXOKIRIK AL DUZU  
ORAIN GURETZAT  
BERDE, GORRI, LARUAK  
IUF! GUZTIONTZAT  
LAI, LAI, LAI, LAI  
IUF! GUZTIONTZAT

OLENTZERO ZU ORAIN  
NORA JOANGO ZARA  
GARAGARTZARA EDO  
GORA UDALARIA?  
LAI, LAI, LAI, LAI  
GORA UDALARIA.

DATORREN GABONETAN  
ETORRIKO AL ZARA,  
TXINTXO PORTATU ETA  
ZAI EGONGO GARA  
LAI, LAI, LAI, LAI  
ZAI EGONGO GARA.

DOINUA:  
AMA BEGIRAZAZU



**ahc**  
Arrasate  
Herri Eskola

**Arrasate**  
INSTITUTUA

# 100 URTE BETETZEN DITUGU

- Arrasaten,
- Arrasateren,
- Arrasaterentzat.



1907-2007

Aurtengo Santamasetan  
Casa Ceciaga-k 100 urte  
betezen ditu Arrasaten  
etengabeko merkatal  
ihardueran.

**EHUN URTE**, eta gero...

Poliki-poliki: gure iharduerarekin  
jarraituko dugu gure osasunak eta  
adoreak bezeroei gure etxeiko ateak  
beste egun batez ilusioz irekitzea  
uzten digunerarte. Ikusiko da...

## GURE ESKERRIK BEROENAK

ehunurteko hau posible  
egin duzuen guztioi.

"Casa Ceciaga"-ko oraingo aurpegia  
garen hauek, omenaldia eskeini nahi  
diegu istorio honi bizitza eman zioten  
(eta diot) guztiei.  
Lehenik eta behin, gure aiton-amona Julian  
eta Rafaelari, familiako enpresa sortzeagatik.  
Ondoren, gure izeba Enkarna eta  
Esperantzari, hasierako dendaren iharduera  
anitza jaso eta mertzeria sortu izanagatik.  
Gure guraso Heriberto eta Eugeniri,  
dendaren atzoko aldetik, beraien esfortzu  
isilarekin familia osoarentzat lan egiteagatik.  
Maritxu Lasagabasterri, denon laguntzaile  
zintzoa izateagatik. Tia Juanita eta Begoñari,  
ahal izan zigutenean laguntzeagatik.  
Gure enkarguak josi eta brodatu dituzten  
jostunei. Gure hornitzaleei, ...  
Urte guzti hauetan gure bezeroei harreta  
ona eskeini dieten "neska" guztiei eta bereziki  
Kontxita eta Mertxe Zarraoari, Rosiri, Marisari,  
Rosa Mariri, Petrirri, Mertxe Plazaolari, Natiri,  
Josune eta Nagoreri eta oraindik gurekin  
jarraitzen duten Ines eta Mari Marri.  
Eta nola ez, Arrasateko eta Debagoineneko  
gure bezeroei euren konfidantza eta estima  
eskeinteagatik.  
Guztioi, bihotzez, mila esker.

*Casa Ceciaga*  
Mahalako Errabala, 3  
20500 ARRASATE-MONDRAÓN  
Tel.-Faxa: 943 791262

*H. Soriano* eta *J. L. Otoño*



Carrascal  
aroztegia

BERTAN EGINDAKO

EKUTIO KALEA 4, PAB. 14-15  
URIBARRI AUZOA  
20500 ARRASATE  
Tel/fax.: 943 79 01 82  
[scarrasc\\_1@infonegocio.com](mailto:scarrasc_1@infonegocio.com)

SUKALDEKO ALTZARIAK  
HORMA-ARMAIRUAK  
BESTELAKO ARMAIRUAK




*jai zoriontsuak guztioi!*



DISTIRA PROFESIONALA

Ondo pasa  
Santamasetan!

Intxaurtxueta\_16\_behea  
20540\_Eskoriatza\_Gipuzkoa  
T\_943 71 48 45  
F\_943 71 30 58  
[www.hemen-garbiketak.com](http://www.hemen-garbiketak.com)



JO TA HANKA TALDEA

# Jo Ta Hanka taldearen erritmoek esango diete agur Santamasei

Herriko plazan egingo du emanaldia, 20:00etan, J&K berbena taldeak, Santamas jaiak umore onez amaitzeko

AINTZANE IRIZAR

Santamas jai eguna-ren iluntzea alaitzeko eta espero den giro hotzari dantzaren bitartez aurre egiteko aukera eskainiko dute Jo Ta Hanka berbena taldeko kideek.

**J**o Ta Hanka da taldearen izen osoa, baina ezagunago dira J&K bezala. Musika talde askori ez zaio gustatzen euren burua definitza, egiten duten musika mota azaltzea. Jo Ta Hankako kideek argi dute *berbena-txosneroa* dela J&K taldea: "Tabernatan edo txosnetan jartzen duten musika jotzen dugu, eta inguruan ikusten dugun horretara moldatzan gara", dio Etxebeste taldekideak.

Eskaintzen duten erreperitorioari dagokionez, batez ere, euskal taldeen bertsioak egiten dituzte: Skalariak, Tapia eta Leturia, Ken Zazpi, Su ta Gar... Bainan, kanpoko taldeen abestiekin ere ausartzen dira, hala nola, Bob Marley eta AC/DC. Ez dira gaur egungo musikara mugatzen: "Nahiko klasi-koak garela esan daiteke; azkeneko 20 bat urteotako abesti ezagunak jotzen ditugu. Boladan dauden abestiar, gaur egungoak, oso gutxi sartu ditugu gure erreperitorioan; bereziki gustatzen zaizkigunak bakarrik". Eta, nola ez, trikitiek eta fandangoek ere badute euren lekua Jo Ta Hanka taldearen emanaldi guzietan.



Jo Ta Hanka taldeko kideak.

dihardute. Santamasetako emanaldian, Iban Gurru-txagak joko du gitarra.

Talde berria den arren, Itsaso Etxebeste taldekidearen esanetan, harrera oso ona izan dute. "Gure saioak oso dibertigarriak dira, ondo pasatzeko aproposak. Guk geuk ere oso ondo pasatzen dugu, eta hori igarri egiten da; jendea ere animatu egiten da".

## BERBENEN EGOERA

Jaiak tabernetatik plazara atera behar direla diote askok. Berbenak krisian daudela ere bai. Hala ere, talde berriak sortu, sortu dira azkenaldian, eta horren adibide da J&K. Nere Erbiti taldekidearen ustez, "trantsizio garaian" daude berbenak, baina, zonaldearen arabera, kontua asko aldatzen da: "Bizkaian, gehiago estimatzen dituzte berbenak, eta Nafarroan, beste inon baino dantza gehiago egiten du jendeak", dio Erbitik.

Berbenak mantentze-ko, lan egin behar dela diote J&K taldeko kideek: "Gure kulturaren parte dira, beste inon ez da honelakorik egiten, eta mantendu beharreko zerba da. Horregatik, jendearen, musikarien eta erakunde-en aldetik, bultzada han-diagoa eman beharko litzazieke", diote.

Erbitik eta Etxebestek diotenez, gainera, berbe-na taldeak ez dira behar adina baloratzen: "Musikari oso onak daude berbenaren munduan, baina badirudi, bertsioak baka-rrrik egiten badituzu, jendeak ez zaituela baloratzan", da euren kexua.

**IBILBIDE LABURRA, BAINA ONA**  
J&K talde gaztea da; bate-  
tik, taldekideak gazteak  
direlako, eta, bestetik, sor-  
tu berria delako. Orain dela;

bi urte sortu zuten Leitza,  
Tolosa, Lekunberri eta  
Oiartzungo bost gaztek.  
Nerea Erbitik trikitia  
jotzen du eta ahotsa jarri;

Itsaso Etxebestek baxua  
jotzen du, eta abestu; Nere  
Urbizuk teklatua jotzen du,  
eta honek ere abesten du;  
Gorka Otamendi da talde-

ko bateria-jolea. Gari Ara-  
baolaza izan da taldeko  
gitarra-jolea orain arte, bai-  
na taldea laga berri du.  
Gitarra-jole berriaren bila

**Euskal musika taldeen zein  
kanpoko bertsioak egiten  
dituzte Jo Ta Hankakoek**

**Orain dela bi urte sortu zuten  
taldea Leitza, Tolosa, Lekunberri  
eta Oiartzungo bost gaztek**

Ondo pasatu Santamasak eta Gabon jai zoriontsuak guztiontzat!

**ERANA**  
*ahorlaritzaz*

Jokin Zaitegi 6, behea Arrasate Tel.: 943 79 83 95 Faxa: 943 79 79 07  
Posta-e: erana@aserana.com

**FOTO ZAHARRA****Binakako suelto txapelketako lehen irabazleak (1991)**

Orain 16 urteko Binakako Suelto Txapelketako irabazleak, irudian, garaikurrak hartzen. Bikote irabazlea pozarren, eta berdin Jon Garai, kultura teknikari ordurako, dantzari gazteak zorionten. Orduan, 14 urtetik beheroek bakarrik har zezaketen parte suelto lehiaketan, eta ez 16 urtera bitartekoek, gaur egun bezala. 1991. urtean, gainera, egin zen lehenengo Binakako Suelto txapelketa, eta aurtengoa XI. edizioa izango da.

Azokari dagokionez, ez ei zen urterik oparoena izan. Hainbat urtetan barazkien lehen saria irabazten zuen Arangureneko Modesta erretiratu egin zen, eta haren ohiko postua Bidezoroko Kontxitak hartu zuen. Gazta lehiaketan, aparteko alerik egin ez zela esan zuen epaimahaiak, eta, herri kirolei dagokienez, Donato Larretxeak saio ikusgarria egin zuen enborrak mozten. Aurretan berreskuratuko den ekitaldia ere egin zuten: koplak kantatzearena. Seberen egin zuten saioa, Iñaki Izarzelaia eta Aitor Sarasua bertsolariekin. Goikobalu abesbatzakoak, Lore Gazteak dantza taldekoak eta Arrasateko trikitixa eskolakoak izan zituzten lagun taula gainean. Ageda zeukan izena zozkatutako txerriak 1991an.

**ad****Ibabe****IBABE GARAJEA****MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**

Gesalibar auzoa z/g.

Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

**Txitxinpe**

Berezitasunak  
Kazuelatxoak  
Ogitarteko  
hotz eta beroak

Arrasate pasealeku 33

ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

**Pando  
Errotuloak**

Gipuzkoa etorbidea 6  
(Legarre pabiloia)  
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Ibilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Seinaleak

Lonak

Erliebedun hizkiak

**BITTORI****ERRETEGIA***Eguneko menua - Kartako menua**Espezialitateak:**legatz kokotxak eta txuleta*

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

FOTO ZAHARRA

**Olentzerok 100 milioi ekarri zituenekoa (1989)**

Aspalditik dihardute urtero-urtero Olentzeroeren postariekin menditik jaisten, euren hankapaloen gainean, Arrasateko neska-mutikoen, eta baita nagusi baten edo besteren, gutunen bila. 1989 urtean ere ez zuten huts egin Txoroniak eta Txoroniak.

Urte hartan, gainera, opari galanta ekarri zuen Olentzerok: loteria saria. 100 milioi pezetako saria egokitut zitzzion 41.367 zenbakia, baina, antza, saridunik ez zen agertu Erdiko kaleko loteria administratzailea egun hartan. Itxura, jende askoren artean banatu zen dezimo hura.

Zalantza barik, 1989ko Santamasetan zeresan handia eman zuen loteria, baina baita azoka berak ere. Esaten zutenez, Azoka kalean azkenengo aldiz egingo omen zen feria, ixtekoak ziren-eta Udal azoka, eta zalantza zen ea ondorengoko urteetan zelan moldatuko ote ziren azokarako. Azkenean, Udalak postuen kontzesioa lutzatzea erabaki zuen eta, gaur egun, betiko lekuaren dirau azokak.

1989 urtean ere, sasoi hartan egiten zen moduan, Iturengo ttunturuekin hasi ziren ospakizunak, goizean goiz Musakolan hasi eta herri guztia zeharkatuz.



**Oparirako artikuluak • Larruzko artikuluak • Bitxiak • Kosmetika**

Kanpatorrea 4, behea  
Arrasate  
Tel.: 943 79 12 19

THE DAZZLING RADIANCE  
OF CRYSTAL FOR YOUR COMPLEXION

PARURE

LOVELY ON THE INSIDE

Elizabeth Arden

UNA OPORTUNIDAD DE ORO PARA SU PIEL.

Catherine Zeta Jones

Geramide Gold Ultra Restorative Capsules

**ERAKUSLEIHO LEHIAKETA**

# Erakusleiho dotoreak kaleetan, Gabon eta Santamas ukituarekin

Egubakoitzean, hilak 21, banatuko dituzte erakusleiho lehiaketako hiru sariak Ibai-Arteko eta Udaleko ordezkarien

AINTZANE IRIZAR

Santamasetan, erakusleiho lehiaketa antolatzen dute. Gabonak gainean izanda, dendariekin bereziki apaintzen dituzte erakusleihoak.

**A**rrasateko Udalak eta Ibai-Arte dendarientzako elkarteak elkarlanean urtero antolatzen dute erakusleiho lehiaketa, Santamas jaien barruan.

Gabonetako jaiak gainean ditugun honetan, garai aproposa da erakusleihoak bereziki apaintzeke. Era guztietako apaingarriak eta estiloak ikus ditzakete herriarrek dendatoko erakusleihoetan. Baina, betiere, Santamasak eta Gabonak gainean ditugula islatzen dute dendariekin.

**SARIAK, EGUBAKOITZEA**  
Ibai-Arte dendarientzako elkarteek kide diren dendetako erakusleiho guztiek parte hartzen dute lehiaketan; ia 90 komertzio dira Ibai-Artekoak, guztira. Elkarteek kide ez direnek ere izan dute, baina, lehiaketan parte hartzeko aukera. Izena eman behar izan dute horretarako.

Abenduaren 15erako, dotore-dotore apainduta zeuden erakusleiho guztiek; eta, lehiaketako baldintzak errespetatuz, halaxe egon beharko dute urte amainera arte. Gainera, erakusleihoetako argiak piztuta egongo dira denbora luzeagoan; jaiegun eta jai-bezperatan erakus-



Iazko irabazole Otamendi harategikoek aurten Santamasetarako prestatu duten erakusleihoa.

IKER BARANDIARAN

leihoak behar bezala ikus-teko aukera izango da, 21:00ak arte.

Sari banaketa egingo dute egubakoitzean, hilak 21. Hiru sari emango dituzte: irabazoleak plaka bat eta 250 euro jasoko ditu; bigarrak, plaka eta 200 euro. Hirugarren saria Ibai-Arte elkarteak emango du: plaka eta 150 euro.

Epaimahaia osatuko dute honako kideek: Udaleko Kultura saileko ordezkari batek, Ibai-Arte elkar-

## Otamendi harategiak, iazko irabazoleak, txorizo abesbatza osatu du Olarteko bere dendan

**Otamendi harategia** izan zen iazko irabazolea. Aurtengo Santamasetarako ere lan handia hartu du, eta dagoeneko apaindu du erakusleihoa: baserritar jantzi ditu etxeen egindako txorizoak, eta abesten jarri ditu, gainera. Abesbatza polita osatu du txorizoekin, partitura eta guzti. "Jendeari asko gustatu zaio, eta hori da garrantzitsuena niretako; bezero askok

esan digu oso polita dela", azaldu du Jose Ramon Otamendi harakinak. "Anai-arrebon artean prestatzentz dugu urtero erakusleihoa", azaldu du.

Herri askotan antolatzen dituzte erakusleiho lehiaketak eta ez da batere ohikoa izaten harategi batek irabazolea; izan ere, dendako produktuekin, kasu honetan haragiarekin, erakusleihoa apaintzeko buruari eragin behar zaio.

teko ordezkari batek eta Eroskiko Kontsumitzaileen Batzordeko kide batek.

Epaimahaiaik hainbat irizpide kontuan hartuko ditu erakusleihoak aztertzeko orduan: irudimena, orijinaltasuna, publizitate mezuaren baliagarritasuna, erakusleihoaren itxuraren kalitatea eta Santamas jaiekin eta Gabon giroarekin zerikusia izaera apaingarriek.

Iazko irabazolea izan zen Otamendi harategia, Olarte kalean; Koro Zabaleta oinetako-dendako erakusleihoari eman zioten bigarren saria; eta hirugarren saria, azkenik, Maalako Arrabalako Altuna lurrindegiak jaso zuen.

### ORIJINALTASUNA

Erakusleihoek jendearen arreta bereganatzeko eta eroslea dendara erakartzeko ahalmena dutela jakinekoa da. Hori badakite dendariekin, eta geroago eta garrantzi handiagoa ematen diote erakusleihoak apaintzeari. Gainera, geroago eta apaingarri orijinalagoak egiten saiatzen dira.

Arrasateko erakusleiho lehiaketako epaimahaikideek kontuan hartzen dute orijinaltasun hori eta dendariekin egindako lana eta esfortzua; baina, baita beste irizpide batzuk ere, hala nola, dendako produktuak erabiltzea erakusleihoak hornitzeko eta dendariekin berak egindako apaingarriak izatea. Horrela, herriko dendarientzako lana saritu nahi izaten dute; baita dendek Gabonetan zein urtean barrena herriko kaleei ematen dieten bizi-tasuna ere.

**Euskal soinu eta irudiak zure eskura!**

**ABESTIAK** POLIFONIKOAK (SMS 1)  
Abestienaren izena (Abeslarria) | **KODEA**

**SOINUAK:** Bidali, SOINUE hutsunea  
**ABESTIAK:** Bidali, SOINUP hutsunea  
**LOGOAK:** Bidali, SOINUL hutsunea  
**JOKOAK:** Bidali, SOINUJ hutsunea

**KODEA**  
**KODEA**  
**KODEA**  
**KODEA**

**5767**  
zenbakira

**SMS bakoitzeko: 1,2 € + BEZA**

**SOINUAK** ERREALAK (2 SMS)

**LOGOAK (SMS 1)**  
**KODEA**

**IKURRIÑA** **ADARIAK** **MUSKARIA** **EGUZKIOREI**  
  
**EH1** **BABAK** **KALABERA1** **EGUZKIORE2**  
  
**BILBO** **BERAKATZAK** **POPATIK** **EGUZKIORE3**

**OHARRAK**

1. **BATERAGARRITASUNA:** Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarririk denean eskaintzen ditugun produktuetan. [www.smsoinu.com/bateragari](http://www.smsoinu.com/bateragari)  
Bertan jasoko duzu beharko dulan informazio guztia.  
2. **BALDINTZAK:** Edukiak eskuratzeko, beherezko da GPRS sistema aktibatuta izatea, GPRS sistema aktibatzeko, jarraitzeko zure hornitzalearekin harremanetan. Alta emateko doan da eta K0 jasiera bakanik ordindua beharko duzu. Kasu guztietan dela eta GPRS sistemaren alta emateko doan dira.  
\* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora. / \* Vodafone: deitu 123-45 / \* Movistar: deitu 699-99.  
3. **ZALANTZAK:** Edozein zaldanza duzu, jari gurekin kontaktuan: [smsoinu@smsoinu.com](mailto:smsoinu@smsoinu.com) / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.  
4. **PERTSONALIZAZIOAK:** Zure neurria egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezakete nahi baduzu, jari gurekin harremanetan eta deitu 902 01 24 telefonora.

**WEBGUNEAN** [www.smsoinu.com](http://www.smsoinu.com)

Zure proiektuak diseinatu eta eraikitzen ditugu.

# GOERA

## eraikuntzak s.l.

barne-berritzeak

gremioen koordinazioa

igeltserotza • enkofratuak

Udalpe kalea 12, behea • 20500 ARRASATE

Telefono eta faxa: 943 03 87 64  
e-posta: construccionesgoera@gmail.com

# Leihatek


Leiho isolatzaileak. Kalitatea, zerbitzua, garantia. PVCzko eta aluminiozko landa-kontraleihoetan espezialistak.

Gure bezeroek bermatuta eta gure sistema integralarekin (Royal Windows), energiaren %20 aurreztuko duzu eta 2 gradu gehiago lortuko dituzu.

Leihoak aldatzeko erabakia hartu aurretik, etorri Leihatek-era. Bertan aholkatuko zaitugu leihoen berriztapenaren inguruan.

Etxera joango gara aholkatzeria eta konpromisorik gabeko aurrekontua egingo dizugu.

Etorri gure tailer eta erakusketa ikustera erabakia hartu aurretik.



Ondo pasau Santamasetan!

Okendo kalea 1, behea 20500 Arrasate Tel.: 943 79 69 91 / Faxa: 943 79 69 91  
ventanasleihatek@euskalnet.net

# Zorionak eta Urte Berri On

## Eskaintza berezia

Jai hauetan zure ondoan inor falta ez dadin, HOTEL MONDRAGONek ondoko eskaintza egiten dizu:

**logela bikoitza 48,60 €** (2007ko abenduaren 21etik 2008ko urtarrilaren 1a arte)



Biteri etorbidea, 16  
Tel.: 943 71 24 33  
20500 Arrasate (Gipuzkoa)  
[hotelmondragon@hotelmondragon.com](mailto:hotelmondragon@hotelmondragon.com)